



Kirola politikaren gregario



- **Joseba Arruti**, Radio Euskadiko zuzendaria: «Hedabide publikoek aginte politikoaren ildo nagusiak bete behar dituzte»
- **Karmele Jaio**: «Lehen, adineko pertsonak bazuten bere lekua, gaur egun existituko ez balira bezala daude»
- **Mikel Basabe**: «Aurrekontuak PSE-EAJrenak dira, lehendakaria López izan, Ibarretxe izan»
- **Albert Pla i Nualart, Avui**: «Katalanak aurrera egiteko, gaztelania atzerarazi behar da»



Slavoj Zizek

pentsamendua, probokazioa, iraultza



ANDY MIAH / CC-BY-SA

Erreportajea

- _ Filosofo esloveniarraren ideietan murgiltzeko gakoak.
- _ Hegel, Marx, Kant, Lacan... ezker berriaren menuan Zizekek trebe nahastutako osagaiak.
- _ Zizeken pentsamendua Euskal Herriko testuinguruan.

- 4 Deabruaren abokatua: Karlos Linazasoro.**
Aritz Galarraga.

Pertsonaia

- 10 Joseba Arruti: "Euskal politika humanizatu behar da".** Sustrai Colina.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Partaidetzarako lengoaia.
Ana Urkiza.
21 Ikasleen defentsan, zer? Arantxa Urbe.
Urratsez. Joxemari Ostolaza.
22 Literatura babestea ez dago modan.
Xabier Mendiguren Elizegi.
Sekula eztakoa. Joxerra Garzia.
23 Zirtak. Ai ama! Jose Inazio Basterretxea.
24 Bertso berriak. Abiadurari jarriak. Jexux Mari Irazu.

Erdiko kaiera

- 28 Interekonomiaren garaia aurreikusi zuen pelikula.**
Gorka Bereziartua.
30 Liburuak. Saioa Ruiz Gonzalez.
31 Diskoak. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Unai Brea.
34 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
36 Osasuna. Jabier Agirre.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Esklabotzaren mendeurren ahaztua. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 39 Albert Pla i Nualart, Avui egunkariko edizio burua: "Biolentzia politikotik baino ezin daitezke defendatu hizkuntzak".** Aritz Galarraga.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Gilles-Eric Seralini, transgenikoen ikerle erasotua. Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Superongi.** Santi Leone.

5 | Kirola eta politika | Jon Torner

Kirola tresna eraginkorra da jendea-
rekin konektatu, mezuak zabaltu eta
nortasuna indartzeko. Politikari eta
enpresariak badakite propaganda
egiteko oso bide egokia dela. Sarri
erabili dituzte estadioak, euren han-
didasunaren erakuslehoio. Eta herritarrak ere baliatu dira
kirolaz, euren aldarrikapenak egiteko.



15 | Alkarbizitza proiektua Bermeoko ikastolan Uxua Larretxea

25 | Elkarrizketa: Karmele Jaio Mikel Asurmendi

43 | Mikel Basabe | Mikel Asurmendi

Aralarreko legebiltzarkidea da Gasteizko
Parlamentuan. Politika instituzionalaz, bake
prozesuaz, eta ezkerreko alderdi abertzaleen arteko
elkarlanaz jardun dugu berarekin. Abertzaletasuna
bidea urratzen ari dela, baina oraindik ere baduela
zer landua, ondorioztatu dugu.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Añña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.


HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua





“Nire liburuak ez erosteko, ez da gomendiorik behar”

Karlos Linazasoro | Triatleta

Irakurle gutxi izan eta, hala ere, kexu da.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Hara, generoetan sinesten ez duen idazlea... ez bada genero femeninoan.

Genero femeninoan eta azpigereroetan sinesten dut nik, nire literatura lanek argi asko erakusten duten moduan.

Triatleta deitu izan diozu inoiz zeure buruari, denera saiatu eta denean gaizki.

Egia, beti gaizki. Gertatzen zait ez dakidala zer landu behar dudan une bakoitzean, erresistentzia aerobikoa edo anaerobikoa, eta pott egiten dut beti...

Aizu, ezin zara sobera kexatu, askok nahiko lituzkete 33 irakurle.

Ba kexu naiz, bai. Lehengo astean irakurle batek esan dit ez duela gehiago nire libururik irakurriko. Beraz, 32.

Kultuzko idazlea izateak badu ezer onik?

Gauza bat: zure irakurleak zu baino jakintzagoak direla, eta lotsagarri uzten zaituztela edozein foro edo symposiumetan.

Lasai bota hemen bota beharrekoak, euskal literaturaren antzera, elkarrizketa hauek ez baititu inork irakurtzen.

Irakurri ez, baina, atrebentziarekin, zer moduz ordaintzen dizute?

Aprobetxa dezakezu zure liburua ez erostea gomendatu zuen kritikariari zerbait esateko.

Nire liburuak ez erosteko ez da halako

gomendiorik behar. Eurek inoren laguntzarik gabe primeran betetzen dute arau hori.

Kritikei kasu egiten dien gutxietakoa izango zara, Karlos...

Niri, kritiketatik, loreak soilik gustatzen zaizkit. Gainerakoa, normalean, kritikariaren gezur, hanka-sartze eta gaiztakeria baino ez da.

Poemak, ipuintxo burugabeak, aforismo tuntuak, gaztetxoentzako pitokeriak. Galdera ironiarik gabea: noizko nobela, best-sellerra?

Ari naiz. Monumentala da, nobela-ibai bat. Sagak daude, misterioak eta kodizeak, katedralak, paidofilia eta hola, gauza arinak. Orain bi mila bat folio kendu behar dizkiot. Hiru titulu dauzkat buruan.

Euskal literaturak duen umoregile bakarretakoa izateko, ezker hankarekin jaiki zara gaur...

Ezagutzen duzu umore ona duen umoregilerik, ala? Izen bat esatea agintzen dizut. Esadazu hitz bat, eta barkatuko dizut.

Konturatzerako, elkarrizketaz mozorrotutako nobela laburra atera zaigu.

Niri ere halaxe ateratzen zaizkit nobelak-eta, konturatzerako...

Tira, joan zaigu denbora. Horren gaineko hausnarrik?

Zein telebistatan emango dutela esan zenidan, aizu? ■

Kirola eta politika

Mitinak baino eraginkorrago

Kirola eta propaganda elkar helduta doaz antzinetik. Kirola ez dela politikarekin nahasi behar esaten du hala esatea dagokionak, jakitun izan arren baloia tresna eraginkorra dela herritarrekin konektatu, mezuak zabaltu eta nortasuna indartzeko.

JON TORNER

JOSU JON IMAZ Petronor enpresako presidentea, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Fernando Garcia Macua Athletic taldeko presidentea irribarretsu ageri dira argazkian. Pasa den otsailaren 5koa da, Lakuaren eta zuri-gorrien arteko akordioa sinatu zen eguneko: UEFA Europa League txapelketan, Belgikako Anderlecht taldearen aurkako bi partidetan “Euskadi” marka erakutsi zuten Athletic-eko jokalariek, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren ekimenez. Petronorrek, bizkaitarren babesleak, inolako kontraprestaziorik gabe onartu zuen bere espazioa Jaurlaritzari uztea. Athletic-ek 120.000 euro jaso zituen.

Més que un club, dio Bartzelona taldearen leloak. “Klub bat baino gehiago” esaldia kirol erakunde zenbaitzuren botere eta eraginaren ispilu da. Futbol taldeen inguruan makineria handia mugitzen da, eta pieza guztiak behar bezala olioztatuta izatea funtsezkoa da. Are gehiago izaera hain markatuko Athletic moduko futbol taldeen kasuan. Zale askok gogoan izango dituzte 2008ko irudi batzuk (ikus hurrengo orriko argazkia): Mariano Rajoy PPko burua Athletic-eko kamiseta eskuan duela ageri da San Mamesen. Haren ondoan daude Garcia Macua eta Antonio Basagoiti lehendakaritzarako PPko hautagai zena. Basagoitiri babesla ematera joan zen





GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Ezkerreko argazkian, Markel Olano Gipuzkoako ahalzun nagusia eta Jokin Aperribay Realeko presidentea. “Gipuzkoa euskararekin bat” lema bitartez, euskara sustatzeko babes-akordioa adostu dute Realak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. 1.200.000 euro jasoko ditu Realak. Eskuinean, Mariano Rajoy Espainiako PPko burua San Mamesen.

Rajoy Bilbora, eta bidaia aprobetxatuz San Mames bisitatu zuten, zuri-gorrien eta Real Madrilaren arteko partida bezperan. Macuak oparitu zion kamiseta Espainiako PPko buruari, taldeko jokalariek guztien sinadurarekin —eurek ez zekiten elastikoa norentzako zen—.

Irudiek polemika handia sortu zuten, eta Athletic-eko zuzendaritzak komunikatua plazaratu behar izan zuen, “Rajoy eta Basagoiti-aren bisitaldi pribatuaren erabilera politikoa” arbuiatuz: “Begiruneko ekitaldi bat alderdi politiko bateko hautagaiaren aldeko ekintza moduan aurkeztu dute. Athletic Club, bere presidentea eta bere Zuzendaritza Batza jakitun dira, gurea bezalako instituzio batek bere baitan lotu behar dituela giza estamentu guztiak, gorde eta babestu bere bazkidego zein zalegoaren aniztasuna eta bere ekimenen edozein erabilpen politiko arbuiatu”. Basagoitik gaineratu zuen bisitaldia ez zela bere hautagaitza babesteko ekintza moduan interpretatu behar, “normaltasun osoke keinu gisa” baizik.

Kontuak kontu, argi dagoena da politikariek jendea eskuratu nahi dutela, eta jendea futbolera joaten dela. Politikarientzat, herritarrekin —boto emaileekin— konektatzeko bidezidor eraginkorra da kirola. Emory-ko (AEB) Unibertsitateko Drew Westen psikologia irakaslea “emozioen politikaz” mintzo da. Politika irabazleak ilusioa transmititzen duena da: herritarren (boto emailearen) burmuinera heltzeko biderik laburrena bihotzaren erditik doa. Kirolak saldu egiten du. Zenbat gobernu-buru, alkate, enpresari ikusi ote dugu estadioetan, txaloez gozatu edo izar handien

Kirolak saldu egiten du. Zenbat gobernu-buru, alkate, enpresari ikusi ote dugu estadioetan, txaloez gozatu edo izar handien alboan argazkiak ateratzen

alboan argazkiak ateratzen. Azaleratu nahi duten handitasunaren neurrira atondutako erakusleihoak dira, produktua lau haizetara zabaltzen duten hedabideen onespren sarri erabatekoarekin.

Futbolak irudia ematen du

Politikariak estadioetan. Kontrako bidea egiten du beste askok, futbola politikara salto egiteko tranpolin moduan erabili duen Joan Laporta Bartzelona (FCB) taldeko presidentea kasu.

“FCB Kataluniako burgesia txiki baten enkarnazioa da, bere bertute eta akats guztiekin”, idatzi zuen Manuel Vázquez Montalbán kazetariak 1972an. Burgesia jada ez hain txiki horren ordezkari da Joan Laporta Bartzelona taldeko presidentea. Instituzioa puntaren puntan utzi eta politikan murgilduko da. Ekainean argituko du Kataluniako hauteskundeetara aurkeztuko den —azaroan egingo dira—, eta hala bada, plataforma berria sortu ala Reagrupament.cat mugimendua babestuko duen. 2009an sortu zuen alderdi hori Joan Carreterok, ERCko kide ohi eta Laportaren adiskideak.

Hartzen duen bidea hartuta ere, FCBko presidentek aurreneko urratsa emana du: jende mordoak ezagutzen du. Estratega orok baloratzen duen ezaugarria da hori. “Politikan nekez lor daitekeen zerbait ematen du futbolak: irudia”, dio Javier Barranco marketin adituak. “Eragozpen handiena da politikara filia eta fobia oso markatuekin iristen direla, baina irudi bat lortu dute eta horrek balio ikaragarria dauka”. Laportak taldearen katala-

nismoa defendatzen du: “Barça Kataluniaren erreferente izan da beti. Frankismoaren garaian, politika egiterik ez zegoenean, Barça kanalizatzen zituen sentimendu katalanista eta askatasun egarrria. Egun, erreferente izaten jarraitzen du. Azken zazpi urteotan bultzatu dugun katalanismoaren bidez, instituzioaren prestigioa ez da gutxitu; aitzitik, hazi egin da. Barça-rik katalanistena, historia-ko unibertsal eta arrakastatsua da”.

Espainiako Selekzioa Bai

Duela hilabete, Espainiako selekzioari Nafarroako Erresuma futbol zelaian jokatzeko gonbita egitea onartu zuen Iruñeko Udalbatzak, PP, UPN eta PSNren aldeko botoekin. “Gurea hiri abegitsu, ireki eta modernoa da; Espainiaren partida batek kidetasun sentimendua indartuko luke”, adierazi zuen Cristina Sanz PPko zinegotziak. “Defendatzen duguna defendatzeaz harro gaude, ez dugu gutxiagotasun konplexurik”, gaineratu zuen Udaleko Kirol arduradun Francisco Javier Lorentek (UPN). Nafarroa Bai eta ANV alderdietako ordezkariak ekimenaren aurka bozkatu zuten.

2009ko azaroaren 16an, Eusko Legebiltzarak Espainiako Futbol Federazioari (RFEF) eskatu zion selekzioarentzako futbol zelaia aukeratzean “Euskadi aintzat hartzeko”. Ebazpena PSE-EE, PP eta UPyD alderdiek babestu zuten. Aralarreko legebiltzarkide Mikel Basabek esan zuen Espainiako selekzioa ekarri gura badute ez dutela oztoporik jarriko, baldin eta Euskal Herriaren aurkako partida ofiziala jokatzera badator.

Ez lirateke futbol partida hutsak izango, argi dago, entretenimenduaren muga gaindituko luketen kirol ekitaldiak baizik. Selekzio nazionalak jokatzeko dutenean identitate-sentimenduek bor-bor egiten dute, eta aipatu kasuetan are nabarmenagoa izango litzateke, kontuan hartu behar baita Espainiako selekzioak 1967an jokatu zuela azkenekoz Euskal Herrian. Kirola politikarekin ez nahasteko esango dute batzuek; hain justu, partida horiek erabaki politikoen ondorio liratekeela erantzungo diete besteek. Selekzio nazionalak, azken finean, nazio baten ordezkari dira. Pascal Boniface politologo frantsesak dioenez, estatua lau elementuk definitzen dute: lurraldeak, herritarrek, gobernuak eta futbol selekzioak. Gurean elementu horiek korapilatu egiten dira: Iparralde, Nafarroa, EAE, Espainia, Frantzia, Euskadi, Euskal Herria... Selekzioen kontuak saltsa ugari sortzen du, eta bakoitzak nahi/ahal bezala irabiatzen du, futbola tresna

Joan Laporta
Bartzelona taldeko
presidentea
Kataluniako Diadan,
“Nazioa gara.
Estatu propioa nahi
dugu” dioen
pankartarekin.



eraginkorra baita entretenimendutik at dauden helburuak lortzeko. Bazter guztiak zipriztindu dituen futbola bakarrik ez, bestelako kirol ekitaldi batzuk ere propagandarako plataforma eraginkorrak dira, milioika lagunenez bazka bilakatu diren heinean.

2008ko ekainean, Euskadiko PPko gazteak Santanderrera joan ziren Espainiaren eta AEBen arteko futbol partida ikustera. *Espainiako Selekzioa Bai* izeneko kanpainaren barruan, Bilboko San Mamesek, Donostiako Anoetak eta Gasteizko Mendizorrotzak Espainiako selekzioa jasotzeko besteek adina eskubide dutela aldarrikatu zuten. Halaber, Espainiako Txirrindulari Itzulian Euskal Herritik pasa dadin eskatu zuten, ezaguna baita kirol horrek gurean duen jarraitzaile kopurua. “Ibarretxe lehenakaria bera dugu adibide”, nabarmendu zuten orduan.

Zer da Euskadi?

Ez dago ukatzerik, txirrindularitzak zale mordo du Euskal Herrian. Aitzakia horren babesean, “inolako konnotazio politikorik ez duen” bigarren ebazpen bat onartu zuen Eusko Legebiltzarra iazko azaroan: PPko gazteek egin bezala, Unipublic erakundeari eskatu zion Espainiako Txirrindulari Itzuliko etapa bat Euskal Herrian hasi eta bukatzeko. “Ziklismoa eta politika nahastu nahi badituzte, ez gaituzte alboan izango”, adierazi zuen Peio Iparragirre EAJko legebiltzarkideak. Cristina Labordak (PSE-EE) erantzun zion

Laporta presidenteak aurreneko urratsa emana du: jende mordoak ezagutzen du. Estrategia orok baloratzen duen ezaugarria da



AMETS TXURRUKAK UTZIA

Goian, Euskaltel-Euskadi taldea Parisen, 2007. urteko Frantziako Tourrean. Behean, Tibetek jasaten duen zapalkuntzaren aurkako mobilizazioa, Pekingo Joko Olimpikoen karietara. Eta Baskoniako Vladimir Golubovic, "TAV Y Euskadi" publizitadedun kamiseta soinean.

eurak ez direla horretan ari, eta gai hauei soilik kirol ikuspegitik heltzeko eskatu zuen.

Goi mailako txirrindularitzak ez du euskal selekziorik baina, iritziak iritzi, neurri batean behintzat Euskaltel-Euskadi taldeak betetzen du paper hori. Maillotean eta taldeko auto zein autobusetan idatzirik eraman ohi duten "Basque Country-Pays Basque" izena milaka jarraitzailek ikusi dute. Bada, Paris-Niza lasterketan, hitz horien alboan "Spain-Spagne" izenak ageri ziren Euskaltelen autobus eta kamioietan. Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Industria Sailaren hitzetan, helburua da publiko atzerri-tarrak Euskal Herria behar bezala identifikatu eta kokatzea: "Ez dadila nahastu, esaterako, Euskal Herri frantsesarekin".

Europarrek "Euskadi" hitza behar bezala identifika dezaten lortu nahiak bultzatuta, Gasteizko Caja Laboral Baskonia eta Bizkaia Bilbao Basket (BBB) saskibaloitza taldeetako jokalarien kamisetetan "Basque Country-País Vasco-Spain" hitzak txertatzea proposatu zuen iaz Eusko Jaurlaritzak, baina bi taldeetako presidentek ezetz erantzun zuten, zenbait bazkideren sentimenduekin ez lukeelako bat egingo.

Jaurlaritzak bigarren proposamen bat egin zien, "Euskadi-TAV bai" esaldia txertatzea, baina hura ere baztertu egin zuten, "Europako estamentu federatiboek debeka zezaketen mezu propagandistikoa" zelako. Azkenean,



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



Baskonia eta BBBko jokalariek "TAV Y Euskadi" publizitatea erakutsi dute etxean jokatu-tako hainbat partidatan. Jon Iñaki Uribe AHTren Aurkako Asanbladako kidearen hitzetan, "kirol profesionala, masa ikuskizun mediatiko bezala, erabaki politikoak legitimatzeko plataforma bihurtzen da, sozialki erroturik dauden instituzioen erabilera manipulatzailerik eta pribatizatzaileen bidez". TAU eta BBBren babesletaz ari zen Uribe, baita Athletic-enaz ere: "Ez da kasualitatea Athletic-ek bere kamisetan erakutsi duen lehendabiziko publizitatea Petronor-ena izatea. Muskizko koke plantaren aurkako mugimendua bizi-bizi zegoenean, publizitate kontzeptu berria frogatu zuten. Ezaugarri gisa ditu eztabaida soziala isilaraztea, oposizioa marketin kolpe bidez deuseztatzen saiatzea eta sinboloaren (futbol taldea) eta markaren (dirua) artean sentimenduzko identifikazioa sortzea".

Espainiako ereserkiari txistuka

Bartzelonako zaletuek maiz erakutsi dute *Katalunia ez da Espainia* dioen pankarta erraldoia, bereziki nazioarteko txapelketetan, euren aldarrikapen independentistei zabalpen handiagoa eman asmoz. Balentria latza lortzekotan izan dira, gainera. Txapel-dunen Ligako finala Madrilgo Santiago Bernabeu futbol zelaian jokatu da aurten, eta Pep Guardiolaren Bartzelona han izatetik gol bakar batera geratu da. Zelai horrek duen karga sinbolikoarekin, harmailak aipatu pankartez eta *senyera*z beterik ikustea zoratzekoa izango litzateke batzuentzat, eta irain mingarria besteentzat.

Ez baitira soilik agintariak kirolaz baliatzen direnak. Herria ere jakitun da haren eraginaz, eta joko-eremua aldarrikapen eta salaketarako gune bihurtu da, baita identitatea berrindartzeko eszenatoki ere. Zientoka adibide aipa genitzake: orotariko bandera eta sinboloen agerpena; Espainiako ereserkiari txistuak Athletic eta Bartzelonaren arteko Errege Kopako finalean; Solidarioak taldeko kideen ekintza –Giraldira izeneko maskotaren klonazio berezia, euskal presoak etxeratzearen aldeko mezua-rekin– Sevillako Atletismo Mundialen inaugurazio ekitaldian, 1999an; Palestinaren aldeko ekintzaileen aldarrikapenak Gasteizko Fernando Buesa pabilioian eta Bartzelonako Palau Blaugranan, Israelgo Maccabiren aurkako saskibaloitza partiden harira; Euskal Herriko selekzioa aupatze-

Biarritz Olympique eta euro-hiria

Biarritz Olympique (BO) errugbi taldeak Donostiako Anoetan jokatu ohi du aldian-aldian, azkenekoz iragan maiatzaren 2an, Heineken Txapelketako finalerdietan, Irlandako Munster taldearen aurka. Horren inguruan galdetu genion 2008an Filgi Claverie Dantzaz konpainiako zuzendariari ARGIA: "Finalerdiak heldu direnean bi aukera daude: Paue, Bordele edo Tolosara (Okzitania) joaten zara Hegoaldeari bizkarra emanez, edo 'herri bat gara' erraiten duzu eta Donostiara etortzen zara. Nik biziki interesgarria atzeman dut Donostiara jitea. Ez dakit herri bera osatzen dugun, baina agintariak ohartu dira Baiona-Donostia hiria sortzen ari dela. Oraindik sinbolikoa da, baina BO klubak publiko berri bat atzeman du ondo-ondoan, kulturalki begi-bistako loturak dituen". Partidek kutsu folklorikoa ez ote duten galdetzean, zera erantzun zigun Claveriek: "Ikurrina asko dela, sobera? Nahiago dut hori, besterik baino. Zaleak ez dira euskal hiztunak, baina beren nortasuna agertzeko ikurrinak aireratzen dituzte. BO Parisera joaten delarik, zaleek 'gu ez gara zuen berdinak, gu Euskal Herrikoak gara -Pays Basquekoak nahi baduzu-' diote. Ez dakite euskaraz, ez dira abertzaleak, frantsesak dira, baina hala ere Euskal Herrikoak dira. Urrats txikia da baina oso garrantzitsua, zinez".



GARI GARAIALDE / ARGIAZKI PRESS

Futbola politika al da?

Zer diote futbol entrenatzaileek?

Javier Clemente: "Ez dut kontsideratzen futbola politika denik. Nik uste dut futboleko gai politiko askok eragiten dutela, edo talde politiko askok, baina futbola futbola da. Gertatzen dena da, futbola ongi ibil dadin eman behar diren baldintza askok politikarekin zerikusia dutela. Bizitza politikoak sortzen ditu normak, gazteriarenak, hezkuntzarenak, kirolarenak, irakaskuntzarenak, beraz erabaki politiko horiek ere futbolera iristen dira, baina besterik ez. (ARGIA, 2006-03-12)

Xabier Azkargorta: "Niri barregura eragiten dit esaten denean kirola eta politika ez direla nahasi behar, oso hipokrita iruditzen zait. Politikari batek badaki, igandean arratsaldeko bostetan, 40 milioi lagun telebista aurrean jartzen duen fenomeno bat dagoela. Politikari batek ez du hori oharkabea pasatzen uzten. Futbola horren sartuta dago etxean, horren sartuta dago gizartean, horrenbeste lotzen da hainbat gauzeekin... Futbola politika hutsa da. Ezetz dioenak hortaz aprobeztatzen delako da". (Uztarria, 2004ko abuztua).

ko mobilizazioak Nafarroako selekzioak Iruñean jokatuak futbol partidetan; Tibeteko herritarrek pairatzen duten zapalkuntzaren aurkako ekintzak Pekingo Joko Olinpikoe-tan.... Hain justu, iragan Jokoetan, Nicolas Sarkozy Fantziako estatuburu eta orduan Europar Batasuneko (EB) presidentea "Europa egin" nahi izan zuen: EBko herrialdeetako kirolari guztiek Europako bandera-dun besokoa janzteko proposatu zuen, baina ideiak ez zuen nahikoa babes lortu. Pekingo Joko Olinpikoak aspaldi bukatu ziren, baina hiru aste besterik ez dira falta hari itzal egin diezaiokeen kirol ekitaldi bakarra hasteko:

Hegoafrikako Munduko Futbol Txapelketa. Edonor irensteko gai den makineria erraldoia mugituko du. Gurean, ez da dudarik, alde bateko zein besteko zein beste hartako jarraitzaileek -izan agintari, ordezkari politiko edo herritar xume- politika egiten dabil-tzala leporatuko diote elkarri. Politika kirola-ekin ez nahasteko eskatuko dute, beraiek ez luketela halakorik sekula egingo. Zer gerta ere, hobe nork (ez) irabaztea desio dugun ez aitortzea. ■

argia.com Gaiari buruzko informazio gehiago aurkituko duzue Jon Tornerren blogean.

Joseba Arruti

«Euskal politika humanizatu behar da»

George Orwell: “Adierazpen askatasuna jendeak entzun nahi ez duena esan ahal izatea da”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Informazioz itotako gizarte honetan, zein da kazetariaren funtzioa?

Betikoa, ahalik eta zintzoen jokatzaz ikusten duena kontatzea. Zoritxarrez, kazetariaren lana geroz eta baldintzatuago dago orotariko interesengatik. Ez da sekula ofizio samurra izan, lan baldintzen aldetik, egonkortasun aldetik, eta horrek eragin zuzena du eguneroko lanean, oso zaila baita presioak alde batera utzi eta filosofia mailako berezko zeregin horri atxikitzea. Okerrera goaz, gainera. Beti pentsatu izan dut gurea ez dela lanbide bat, bokazio bati emandako erantzuna baizik. Horrela izan beharko luke aurrerantzean ere, baina lan baldintzak izugarri okertu dira, eta hedabideen kopurua biderkatu bada ere, ez nago ziur aniztasunean irabazi dugunik. Krisiaren ondorioz, jadanik ematen ari den berrantolaketa bat etorriko da hedabideen mundura, eta horrek zerikusi zuzena izango du gure balizko independentzian. Askotan, kazetariak, beste edozein langile bezala, bere printzipioak irensten baititu bere lanpostua salbatze aldera.

Adierazpen askatasunaren etsairik handiena langabezia dela, alegia.

Handiena ez dakit, baina handienetakoa bai. Lan-merkatua dagoen bezala dago, eta bistan da prekarietatea dela kazetaria auto-zentsuratzeko modurik zuzenena. Prekarietate hori orokortzen ari da gainera, ez baitut uste alde handirik dagoenik medio kontserbadoreen eta aurrerakoien artean. Beti egon daitezke euren buruarekin, ikusten dutenarekin eta objektibotasunarekin zintzoagoak diren kazetariak, baina oso zaila da, independentzia maila hori lortzeko ibilbide sendoa behar baituzu atzetik. Horregatik diot erabateko inde-

pendentziarik ez dagoela eta kazetariaren objektibotasuna mito bat dela. Bakoitzak erantzuten die bere interesei.

Erredakziotik zuzendaritzara pasata, nola egingen diozu horri aurre?

Kudeatzailerik izateko ezinbestekoa behar luke aurrez kaleko kazetari gisa aritu izanak. Jende gehiegi pasatzen da zuzenean gestore lanak egitera eta horrek errealtatea desitxuratzen du. Enpresa munduan ere, arlo pribatutik pasa den jendea hautatuko nuke sektore publikorako. Inpresioa daukat beti hedabide publikoetan lan egin duten kazetari askok ez dakitela zein den kazetaritzaren errealtate gordina. Pribatutik gatozenak badakigu zein baldintzatan egingen den lan, zein egoeratan dauden hainbat eta hainbat kazetari. Ni saiatzen naiz orain arte eraman dudana filosofia aplikatzen, kazetari eta langileei ahalik eta egonkortasun, konfiantza eta autonomia handiena emanez. Krisiak gogorren jo duenean sartu garen arren, langileen egonkortasuna lehenesten ahalegindu gara, denen behar-izanak asetzea ezinezkoa den arren. Finean, hedabide batek ondo funtzionatzeko ezinbestekoa da langileak gustura egotea.

Ezinbestekoa zen ildo editoriala aldatzea?

Edonork ulertu beharko luke hedabide publiko batek aginte politikoaren ildo nagusiak bete behar dituela. Aniztasuna bermatzera eta errealtate instituzionala errespetatzera behartuta gaude. Horrek ez du esan nahi kazetariari politikoki eta ideologikoki inplikatzeko eskatzen zaionik, baina hau ez da inoren jostailua, hedabide publiko bat baizik. Errealtate instituzional hori aldatzea ez dago nire esku, beste maila batzuetako eztabaida

A man with glasses and a purple button-down shirt stands on a mezzanine level of a large library. He is leaning on a metal railing with his right hand. His left hand is in his pocket. He is looking directly at the camera. The background shows the library's interior with bookshelves and people working at tables.

Nortasun agiria

1969ko urriaren 12an jaio zen Gernikan. EHU-n kazetaritzan lizentziatua, Deiar aldizkariako zuzendari, Euskadi Irratiko, *Euskaldunon Egunkariako* eta *Deiako* kazetari, eta medio askotako kolaboratzaile izan da, egun Radio Euskadiko zuzendari dena. Winston Churchill-en eta Josif Stalin-en biografien egilea eta *Proceso de Paz en Euskadi*; *20 voces por la normalización* liburuaren egileetako bat izateaz gain, Euskararen Aholku batzordeko kide ere bada.

da. Hori hala, inork ezin du esan kontu ideologikoetan sartu garenik. Arazo larria litzateke irrati publikoa batzuekin edo besteekin identifikatzea. Guk besteen iritziak errespetatzeko, euren posizioak zalantzan jartzeko, eta autokritikarako gai diren entzule kritikoak nahi ditugu. Alderdi batekin edo bestearekin oso identifikatuak daudenentzat medio pribatuak daude.

Errealitate instituzionala errespetatze hutsa bada apustu ideologiko bat, eta herri honetan zer esanik ez.

Errealitate instituzionalarekiko errespetua ez da nire ustez jarrera politiko konkretu bat, hedabide publiko baten betebeharra baizik. Albisteei dagokionez, esaterako, Espainian gertatzen dena beti izan da lehen mailako gertakizuna Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideetan. Guk hemen gertatzen denaren berri ematen dugu, baita Espainian gertatzen denarena ere, ez baita arrotza guretzat, eragina duelako gudan. Ez dut uste Radio Euskadi inoiz baino politikoki kutsatuago dagoenik. Errealitate instituzionala errespetatzen saiatzen gara. Hori ez da zuzendaritza baten edo bestearen apustua, hedabide publiko baten izaeraren ondorioa baizik. Hedabide publikoak ez ziren anti-sistema izateko sortu, ezta indarrean dauden errealitate instituzionalei kontra egiteko ere.

Zenbat baldintzatzen du zure ideologia, zure pentsamoldea, goizero lanera bizkartzainekin etortzeak?

Ahalik eta gutxien baldintza nazan saiatzen naiz, baina oso egoera gogorra da. Deigarria zait herri honetan zenbat hitz egiten den adierazpen askatasunari buruz eta egunero koan zer gutxi egiten den berau defendatzeko. Zergatik hitz egiten da hainbeste hedabide publikoetan ezker abertzale lege kanporatuak duen presentziaz edo faltaz, eta hain gutxi EITBko zuzendaritza osoaren bizkartzainez? Nik beti defendatu dut denon adierazpen askatasuna. *Euskaldunon Egunkari*ko langile izan nintzen, eta ulertzekoa da zer ikuspuntutatik egin dudaneure jarrera hori. Nire iritziz, besteen ahotsa errespetatzeko gai den edonori eman behar zaio ahotsa irrati publikoan. Hori da baldintza bakarra, ez dago besterik. Besteen ahotsa errespetatzeko prest ez dagoenari ezin zaio ahotsik eman. Hedabide publiko batek gutxieneko baldintza batzuk jarri behar ditu. Inork ez luke onartuko emakumeak jipoitzearen aldeko ahots bat

irratian. Inork ez luke ulertuko jarrera homofobo edo intolerantei leku egitea. Gurean, zoritxarrez, intolerante asko dago, begi onez ikusten duena hainbat kazetari mehatxatuak egotea. Horiek ez dute lekuri hedabide publikoetan, beste guztiek bai. Jarrerarik irmo eta muturrekoena defendatu dezakezu, baina joko-arau horren barruan.

Joko-arau horren menpe baino gehiago, afera ez al dago joko politikoaren menpe? Juan Antonio Samaranch ministro frankista zenari gorazarre egiteko ez da arazorik egon.

Gure tertulia eta programazioa ikusi besterik ez dago ahalik eta ahots gehienei leku egiteko zirrikitu guztiak probesten saiatzen garelako jabetzeko. Baina oso kasuistika berezian bizi da gure herria. Talde terrorista batek ekinean jarraitzen du, hainbat pertsona mehatxatuta dauzka, eta horrek nahi ala ez, egoera baldintzatzen du. Oso desberdina da jarrera erradikalak defendatzea halako indarkeria motarik ez dagoen herrialdeetan. Hori hala, legezkoa den ezker abertzaleari

lekua egiten zaio, baina legez kanpo dagoenari hedabide publikoak ezin dio tarterik eskaini zuzendaritzaren borondatea batekoa zein bestekoa izan. Sinetsi nahi dut errespetuzko bide hori jorratzen duten neurrian ate gehiago zabalduko direla. Desiratzen nago egon daitezkeen aurrerapauso guztiak sendotzeko, joko politiko zabaltzeko, eta irrati publikoan are ahots gehiago entzun ahal izateko, besteak beste horrek esan nahi lukeelako bizkartzainik gabe bizi ahal izango dudala. Ez pentsa ezker abertzale lege kanporatuari beto bat ezartzen zaionik sudur-puntan jartzen zaigulako, ez da gutizia bat. Ez diet eskatzen ideologikoki ezeri uko egiterik, besteen bizitza eta pentsamoldea errespetatzeko baizik.

Radio Euskadiko zuzendari izan baino lehen, hedabide zenbaitetan politika landu duzunez, nola ikusten duzu egungo panorama politikoa?

Oso eszeptikoa naiz, eta ez holakoa jaio nintzelako, esperientziak eszeptikoa izaten irakatsi didalako baizik. Huts egin duten hainbat saiakera izan dira azken urteotan, eta ez dakit orain artean huts egin duenak arrakastaren porturako bidea topatuko duen. Aurrerapauso argiakoak behar direla uste dut, lege kanpoko ezker abertzalearen barruan eszisiaio saihesteko gauzak motel eta baldintzatuta egitea ulertzen badut ere. Baina berriz diot, aurrerapausoak argiako



behar du, eta benetan atzerabuelarik gabekoa. Orain arte askotan entzun ditugu esaldi potolo eta ponpoxoak, ustez atzerabuelarik gabekoak, baina gero ezerezean geratu direnak. Oso gertutik bizi izan nituen Lizarra-Garaziko eta Anoetaren osteko prozesuak. Anoetan bertan egon nintzen kazetari gisa, eta han egon zen edonork sinesten zuen han ez zegoela atzerabuelarik. Hori hala, indarkeriak badu etorkizunik? Indarkeria zilegi da ala behin-betiko baztertuko da borroka

politikoari eusteko? Horiek dira erantzun beharreko galderak, eta erantzuten hasita, orain arte ez bezala, azken muturreraino erantzun behar direnak. Azken mugimendu horiek aurrera egingo balute ezusteko handiak hartuko genituzke, egoera politikoa goitik behera aldatzeraino. Horregatik diot, nire ustez, terrorismoa defendatzen dutenen ikuspuntutik ere hanka-sartze handia dela egungo egoera mantentzea. Eszenatoki berriak sekulako aukerak zabalduko lituzke



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com





OFF THE RECORD

Etorkizuna

Radio Euskadiko zuzendaritzaren osteko asmoei buruz galde-tu diogunean, ez dela anbizio-tsua, eta ez daukala ideiarik erantzun digu. Horrek egunero-ko lanean laguntzen omen dio gainera. "Etorkizuna ziurtatuta dagoenean, egunero-ko lana ez da ziurtatuta ez dagoenean bezain ondo betetzen" eman digu sententzia. Ez dira betaurreko txarrak leku zenbaitetan ez itsutzeko.

denontzako. Izan ere egun, aurreiritzi gehiegi-jokatzen dugu, Euskal Herrian sektarismo gehiegi dago, eta sektarismo hori bultzatu beharrean, euskal politika humanizatu behar da.

Nola humanizatu gizartea prozesuak hain motel eta albisteak hain azkar doazenean?

Irratia oso ondo moldatzen da munduaren abiada azkarrera. Prentsa idatzirako etengabeko buruko-mina dena mesedegarria da guretzat. Albisteen hierarkia zehazterakoan iraultza gertatu da ordea, eta harrigarria da zenbait albiste ustekok nolako garapena eta oihartzuna lortzen duten gure hedabideetan. Horrek albisteen eta hedabideen banalizazioa dakar, eta zuzen-zuzenean eragiten du hedabidea kontsumitzen duenarengan. Azkenean, hedabideak eskaera horretara egokitzen dira eta banalizazio bete-betean sartzen diren erdipurdiko formatu askoren arrakasta pairatzen ari gara. Ezinbestekoa da niretzat hedabide publikoak hortik urruti mantentzea, bestelako hausnarketetarako guneak zabalduz. Gure obligazioa da kalitatea, seriotasuna, aniztasuna eta pentsamendu kritikoa garatzeko tresnak eskaintzea. Dagoeneko hasi da, eta etorkizunean areagotu egingo da, medio publikoen aurkako oldarraldia. Medio pribatuetatik geroz eta gehiago zabaltzen nahi dute hedabide publikoak beharrezkoak ez diren ideia hori. Horregatik uste dut inportantea dela hedabide publikoek ere euren lekua egitea, besteak beste, gizartearen humanizazioan zeregin handia daukagulako.

Ilaki Gabilondok zioen, kazetaritzaren geroari buruzko edozein mintegitan, beti bukatzen zela komunikazio enpresei buruz hizketan. Indus-triak jan du informazioa?

Aldaketa aroan gaude. Egia da gurean, komunikazio enpresei dagokienez, egoera nahiko egonkorra dela, eta hedabide enpresen errealitateak ez duela zerikusi handirik errealitate politikoarekin. Horrek esan nahi du herritar asko eta asko gai direla egunero bestelako pentsamoldea defendatzen duten hedabideak kontsumitzeko. Hori hala, kazetaritzaren etorkizuna zein izango den? Askok hitz egiten da prentsa idatziaren agoniaz eta ikus-entzunezkoen hauspotzeaz, baina egiari zor, unibertsitatean nengoenetik entzuten dudana teoria da. Antzerki eta zineari buruz ere horixe bera esan izan da, baina gero begira... Lepoa jokatu behar banu, prentsa idatziak bere lekua izango duela eta geroz eta kultura audiobisual handiagora goazela esango nuke. Parametro berri horietara egokitzen ez dakien enpresak ez du etorkizunik izango, baina egia da era berean, hausnarketa horiek egiterakoan norbera beti lerrokatzen dela bere enpresaren arrastora. Azkenean, enpresek gehiegi baldintzatzen gaituzte, eta ematen du gauden enpresaren arabera elkarren aurka aritzen garela errealitatea erlatibizatu gabe. Argumenturik gabe batzuen alde eta besteen aurka ibiltzea kaltegarria da ofizioarentzako, prebisibleegiak garenean sinesgarritasuna galtzen dugulako. Eskema batzuk apurtzeko ordua da, eta etorkizunari buruzko hausnarketak taxutzeko posizionamendu sare horren gainetik ibili behar dugu. ■

• Alkarbizitza proiektua •

Arazoei nola aurre egin

Bermeoko Eleizalde Ikastola da aurtengo Ibilaldiaren antolatzailea. Ikasleen hartu-emanak lantzeko programa dute martxan: Alkarbizitza. Ekimenaren nondik norakoak gertutik ezagutu nahi izan ditugu.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco



“IRAKASLEAK, mahai baten inguruan dauden haurrei marrazki bat egiteko eskatu die. Horretan ari direla, ikasleetako bat, Karlos, ohartu da margo urdina behar duela, baina bat ere ez dagoela libre. Beste ikaskide batzuek, ordea, erabiltzen ari ez diren arren margo urdinak eskuan dauzkate”. Egoera

hori planteatu die Eleizalde Ikastolan Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako irakasleak haurrei. Egunerokoan, izan ere, halakorik biziko dute beharbada, eta beraz, horren aurrean nola jokatu eta zein irtenbide eman hautatzen jakitea lagungarri zaie. Horixe da Bizkaiko ikastolan martxan dagoen Hartu-





Belen Gerrikogoitia irakaslea.

Emon proiektuaren –Alkarbizitza izenez eza-
guna– helburua. Lau urte dira abiatu zutene-
tik, eta harrezkeroztik, irakasle eta ikasleek
elkarlanean gizarteratze trebeziak lantzen
dituzte buru-belarri.

“Gabezia bat ikusi genuen ikasleen hartu-
emanetan, gaia lantzen zuen adituarekin
harremanetan jarri eta Alkarbizitza proiektua
abiarazi genuen, hark sortutako programa eta
materiala erabiliz”, azaldu du Belen Gerriko-
goitia Lehen Hezkuntzako hirugarren maila-
ko tutoreak. Hasteko, Lehen Hezkuntzako
irakasleek proiektuaren formazio bateratu eta

**"Prebentzio lana ere bada, gerora
haurren artean eman litezkeen
gatazkei aurre hartzen baitzaie;
esaterako, adin nagusiagoetan
gertatzen diren jarrera bortitzak
saihesteko"**

Belen Gerrikogoitia, irakaslea

intentsiboa jaso zuten, eta ondoren, ikastur-
tean zehar aldika heldu zioten gaiari, teoria
praktikara eroanez. Hastapenetatik proiektu-
an murgilduta zeuden irakasleei gainontze-
koak (Haur Hezkuntzakoak eta Derrigorrez-
ko Bigarren Hezkuntzakoak) batu
zitzazkien.

Gaur egun, astean behin jorratzen dute
programa, tutoretza orduan; tarte horretan,
irakasleak proposatutako arazoez gain, euren
egunerokotasunean izandakoez ere jarduten
dira ikasleak. Nolanahi ere, haurren arteko
iskanbilak nagusiki jolas garaian sortzen dire-
la jakitun direnez, hurrengo orduan aztertzen
dituzte egon diren buruhaustek eta horiei
irtenbide egokiena bilatzen diete.

Ikasleak gatazkak aztertzen eta konpontzen

Gizarteratze trebeziak irakasteko, ikasleei
gatazka bat planteatzen diete eta denen
arteak konpontzen dute. Horretarako, bost
urrats jarraitzen dituzte. Lehen urratsa lamina
batean egoera jakin bat aurkeztea litzateke
–haurrak irakasleak eskatuta marrazkia
marrazten ari dira, baina Karlosek ez dauka
behar duen margo urdina–. Egoera horretan
nork edo nortzuk duten arazoa azaltzeko
eskatu die irakasleak arretaz entzuten dioten
ikasleei, eta aldi berean, afera deskribatzeko
eta emozioak identifikatzeko. Iñaki jabetu da
Karlosek arazo bat duela, “aurpegian nabari-

Atalde, 17 atz / 175 pk · 48370 **BERMEO** (Bizkaia)
Tel./Faxa 94 688 59 38
gotzongarieusk@euskalnet.net

www.almiketxu.com

Almiketxu
ERRETEGIA

Almike Auzoa 8
48370 **BERMEO** (Bizkaia)

Tel. 94 688 0925
info@almiketxu.com

tzen zaio urduri dagoela”. Emozio negatibo bat agertu denez (urduritasuna), badakite problema baten aurrean daudela. Ondoren, egon daitezkeen irtenbide guztiak aipatzeko unea iritsi zaie ikasleei. Eskuak altxatuta eta gogotsu itxaron dute hitz egiteko euren txanda. Ikasle batek dio Karlosek beste ikaskideei margo urdina eskatuta amaituko dela arazoa; beste batek, aldiz, uste du onena litzatekeela irakasleari denbora gehiago eskatzea marrazkia bukatzeko; eta hirugarren baten iritziz, irakasleari beste margo urdin bat eskatu beharko lioke Karlosek.

“Irtenbide egokiena besteei eskatzea da, baina kontuan izan behar duzue beste haurren jokabidea ere ez dela zuzena izan, norberak margo urdina behar ez duenean edukitzea ez baitago ondo”, gogorarazi die irakasleak. Beraz, gaurkoan zera ikasi dute bosgarren mailako ikasleek: talde lanean jardutean, norberaren beharrez gainera, besteak ere aintzat hartu behar direla. Horrekin batera, arazoak eta irtenbideak sentimenduekin zerikusia dutela ere gogoratu dute, baita norberaren arazoa amaitzen dela gustura gelditzen denean; hots, irtenbide egokiena bilatzen duenean.

“Programa edo dinamika horrek haurrei pentsamendu erreflexiboa eta malgua lantzen laguntzen die”, Belen Gerrikogotiaren arabera. Gainera, problemari aurre egiteko baliabideak ematen dizkie etorkizunean horiek konpontzeko gai izan daitezkeen. “Prebentzio lana ere bada, gerora haurren artean eman litezkeen gatazkei aurre hartzen baitzaie; esaterako, adin nagusiagoetan gertatzen diren jarrera bortitzak saihesteko lagungarri da”.

Dena den, Alkarbizitzaren tankerako programen arrakasta bermatzeko konstantzia eta sistematizazioa nahitaezkoak direla gogoratu du Gerrikogotiak, haurrek portaerak behar bezala barnera ditzaten. Hala, ekimena irakaskuntza ziklo guztietan jorratzen dute,



Arazo bat du Karlosek, margo urdina falta zaio, beste ikaskide batzuek, erabili ez arren, badutena. Zer egin? Ikasleek eskuak altxatu dituzte, erantzun ezberdinekin.



aplikatzeko neurria da batetik bestera aldatzen dena. Beraz, txikitatik ikasten dute arazoez hitz egiten eta horiek nola konpondu behar dituzten lantzen, bai ikastolan, bai ikastolatik kanpo. Eleizalde Ikastolan izan garen egunean, lau ikasleek arazo bat izan dute jolas garaian eta ikasgelara sartu beharrean irakasleari baimena eskatu eta pasilloan geratu dira afera konpontzen. Behin hitz eginda, beste ikaskideekin batera jarraitu dute lanean.

www.manuko-benta.com

Mañua auzoa, z/g (Sollube gaina) 48370 **BERMEO**
manuko-benta@euskalnet.net
Tel. 946 881 212 · Faxe 946 885 000

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK. GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: **www.clubcampos.com**



Marigoran Kikunbera

Maiatzaren 30ean izango da aurtengo Ibi-laldia, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitarteko eskaintza ematen duen Bermeoko Eleizalde Ikastolaren eskutik. *Marigoran Kikunbera* lelopean, Bizkaiko Ikastolen aldeko jaiarekin nagusiki bi helburu lortu nahi dituzte. Alde batetik, euren ikastola proiektua ezagutaraztea eta inguruan ikastola eredia indarberritzea, eta bestetik, duela 32 urte abiarazitako ikastolaren azpiegitura handitzea. Izan ere, txiki geratu zaie egungo eraikina, eta horrenbestez, azpiegitura batzuk egoitu eta beste berri batzuk egin behar dituzte.

Badakite noiz dauden arazo baten aurrean, emozioak identifikatzen dituzte eta horri irtenbidea ematen diote. Konponbide horrekin etekina (sentimendu positiboa) ateratzen dutela ere badakite. Bestalde, ikasleren batek klasean bere arazoa azaltzen duenean, denek artean aztertzen dute. Jolas zelaia beste batek hartu duela, ilaran norbait aurreratu dela, baloia kendu diotela... Arazoa edozein izan daiteke, hori konpontzeko metodologia, aldiz, bera izango da kasu guztietan.

Ikasle eta irakasleen arteko akordioak

Eleizaldeko martxa erregulatzeko Alkarbizitza programaz gain, badute bestelako baliabiderik: araudia. Akordio edo kontratu horiek kolektiboak dira batetik –ikasgelako eta ikastolako beste espazioak aintzat hartzen ditu–, eta bestetik, norberari dagozkionak. Arau horiek lortu nahi dugun jarreraren arabera daude egokituak eta lau ezaugarri dituzte: modu argi eta ulerkorrean zehaztea zein helburu lortu nahi diren, zelan lortuko diren, noiz eta nola baloratu edo neurtuko diren. Esaterako, hitz egin

nahi denean eskua altxatzea helburu bat izan daiteke. Aste osoan gelako denek hitz egin nahi duten bakoitzean eskua altxatzea lortzen badute, bost minutu lehenago irtengo dira jolas garaira (errefortzu positibo gisa). Xedea da jarrera hori ohitura bilakatzea, eta hortaz, sari gabe portaera bera izatea. *Lanak* izenarekin ikasgelako paretan dituzte jarriak errespetatu behar dituzten arauak.

Lortzen al dituzte aurreikusitako emaitzak? Gerrikogoiaren hitzetan, “orain ikastolan iskanbila eta oihu gutxiago dago, berba gehiago egiten dute, entzuten ikasi dute, arazo baten aurrean indarrera jo beharrean bestelako aukera batzuk daudela ohartu dira, irakasleok ikasleengana hurbiltzeko modu egokiago bat darabilgu, eta abar”. Emaitzak epe laburrera baino, nabarmenago epe luzera ikusten diren arren, ikasle batzuen jarreraren aldaketa batzuk aipatu ditu: “Lehen batzuek ez zuten lan egiteko gogorik, edo arreata mantentzeko zailtasunak zituzten; orain, ordea, lanean ari dira eta hori haur horientzat asko da”. ■



abante saltzaijuen poparien zuesgora marigoran
 palpatien fulespidien kikunbera
 andanadan bela-bela maripuntan
 singen lantzadan zagan flotan
 mariberan alardan biribirike karinkara

BERMEO

Hizkuntza Eskola Ofiziala

Escuela Oficial de Idiomas

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

ZER GERTA LITEKE PRESIDENTE PIPERGILE 1ekin?

Lehendakari
Jauna ...

... egoera
oso kaotikoa,
oso larria,
oso ...

OSO
Lemiooo



Partaidetzarako lengoaia

G

izakia enborra balitz, José Luis, erditik moztuz gero, zuhaitzari nola, gizakiari hala aztertuko genio-

ke ordu arte izandako bizimoduaren berri: gaixotasunak batetik, eta bestetik, arrakastak eta damuak: lorratza uzten duen oker edo atzera egindako pauso andana. Eta bai, erditik moztutako gizaki horren eta bion artean legokeen mundua bat egitea, Ixiar, helburu ederra izanik ere, benetan, zaila suertatzen da; maizenik, estralurtarrak izango bagina bezala, mundu guztiz ezberdinetakoak garela konturatzen baikara.

Ez dut ezkutatuko, José Luis, deigarria egin zaidanik zure konfiantza faltaren gaineko ideia. Nik, garai hauetan, konfiantza “eduki” barik, konfiantza “erein” egin behar dela ulertzen dut. Konfiantza edukitzeak norbaitengan edo norbaitzuegan sinestea suposatzen baitu. Eta Ixiarrek esaten zuen bezala, pentsamenduak parte-hartze kritikoa bultzatu behar duenez, parte-hartzea da, lehenik eta behin, sustatu beharrekoa. Ez sinesmena.

Mugimendua eratzearen aldeko aldarria egin diguzu, Ixiar, gero eta indibidualistagoa den gizarte honetan. Pentsatzeari utzi, nola-bait esateko, eta akziora bide egitea. Parte hartzera. Parte hartze kritikora. Ez nolanahiko parte hartzera. Ekarriren bat egingo duena, alajaina.

Eta, niri, txuri-beltzeko argazkiak etorri zaizkit burura. Herri osoak parte hartu izaten genueneko gai, jai, asmo, behar eta nahiak lagundutako garaiak. Ezin ahantzizkoak zaizkit *Ez dok amairuren* taularatzeak, ‘Berrehun mila ez!’ lemapean egindako manifestaldiak, Bai Euskarari kanpaina, Intxixu-ren lehen agerraldiak...

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padroin



Rozas

Bai Euskarari kanpaina, Intxixu-ren lehen agerraldiak... edota ikastetxetik euskal kantak ikastera Saturrango seminario zaharrera joan eta han, seme-alaba eta guraso, senitarteko eta lagun, denok batera, parte hartzea nola bizi genuen. Inori ez zitzaion otutzen asteburu haietan deus egin gabe geratzea. Izan ere, denok baikenuen zerbait egiteko, eskaintzeko, esateko, iradokitze-ko... edota ikasteko eta irakasteko.

Gaur, Seminario zahar hartara (existituko balitz) eramango gintuzkeen arrazoia falta da. Kritikoak garela esaten dugunean, edota parte-hartze kritikoa bultzatu behar dugula, gure bizi-penetik abiatzen gara. Guk egokitzen ikusten dugunetik. Guri funtzionatu zigunetik. Baina parte-hartzea, orain, bali-teke beste modu batera ulertzea. Parte-hartzeari, berari, apika, beste zerbait egitea eskatzen zaio edo eskatu behar genioke. Belaunaldi berriak ez

datoz alferri. Eta, beraz, gure pentsamendua, ustez sortzailea edota eraikitze-ko asmoz ondua izanda ere, jasotzen dugun erantzuna ikusita, José Luisek aipatzen duen konfiantza faltak eragiten digu, edota atopian murgilduriko bizimodua ageri zaigula iruditzen zaigu, Ixiar.

Gure lengoaia egoera berriari egokitu beharra daukagu. Eta pentsamendu kritikoa agertzeaz gain, agitzekotan, Ixiarren deiari jarraiki, egokitu —ez errendizio bezala ulertuta— edota egokitze-ko era berriak deskubritu beharrean gaude. Hor behar dugu sortzaileak izan. Sortzaile kritikoak. Eta sinesgarriak. Zu eta bion artean dagoen mundua interesgarri egingo duen moldaketa-lan parte-hartzaile sortzailea. ■

Arantxa Urbe

HIK HASIKO KIDEA

Ikasleen defentsan, nor?

Izan zitekeen gu gobernatzen gaituztenak orain arte egin dugun ibilbidea kontuan eduki nahi izatea; gaizki egindakoak zuzendu eta ongi egindakoak indartzeko besterik ez bada ere.

Izan zitekeen, halaber, gu gobernatzen gaituztenentzat hezkuntzak garrantzia izatea. Sinestea, hezkuntza, bor-bor darabilten askatasuna eta bizikidetzat demokratikoa bermatzeko osagai funtsezkoa eta ezinbestekoa dela: jendartearen kohesionatzeko urrezko tresna izan litekeela, alegia.

Eta izan zitekeen, eskubide hori herritar guztientzat ahalbidetzeko ahalegina izatea haien lehentasuna. Ahalbidetze lan horretan, gainera, kalitatea izatea ezaugarri behinena. Kalitatea, hezkuntza zientziek, adituek egindako ikerketek eta hezitzaileen eguneroko lanaren eskarmentuak esaten dutena kontuan harturik.

Aspaldi honetan xexu ginen jendarteak eta agintariek ez ziotela hezkuntzari beharrezko arreta jarri eta benetako balioa ematen.

Azken asteetako albistei eta elkarrizketei erreparatu, ordea, hezkuntza gaiak egunerokotasuneko lehen mailara pasa direla ikusi dugu. Eskandaluak jantziriko protagonismoa, nola bestela?

Lehendakaria komunikabidei hainbat hezkuntza arloko egokitasunen gaineko azalpenak ematen, kontseilariak haien aginduak ez bete-



ALBERTO ELOSEGI

tzeko tentazioa agertzen duten hezitzaileak zigorrarekin mehatxatzen, besteen artean, dira azken egun hauetan ikusi ahal izan direnak.

Baina benetan zenbat jenderen kezka da eskolan egiten den lana eta ahalegina; zenbat dira Euskal Herriko eskolak gobernatzen dituzten administrazio ezberdinek egin nahi dutena egiteko erabiltzen ari diren arrazoietan sakondu dutenak?

Benetako izua ematen du erabiltzen ari diren argudioak entzuteak. Oinarri zientifiko guztien kontrakoak, gehienetan.

Izua sortzen du argudioen atzean neurri horiek inposatzeko prest dituzten armak ikustea: dekretuak, aginduak, zigorrak, kontzertuak kentzeko meha-

txuak eta “betetzen ez dituztenentzat neurriak hartuko ditugula” iragarpen lauso eta iradokitzailea.


Zaparradaren azpian guztiok gaude, baina batez ere euskal haur eta gazteak. Helburuak betetzeko “guztiak balio du” dinamika ero honetan ahaztuenak bilakatu dira, akaso.

Martxa honetan, haien segurtasun fisiko eta intelektualaren alde eskolatik eta agintarietatik defendatuko dituen mugimendu indartsu bat antolatuko beharko dugu. Izan zitekeen, bai, baina izua ematen du zer izan daitekeen ikusteak! ■

Benetako izua ematen du
erabiltzen ari diren
argudioak entzuteak

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ekin genion urtero bezala zirkuituari, Senpereko lakuari itzulia emanez. Ohiko lagunak agurtzeko parada. Eguerdi alderako ohartuak ginen, gehiago ziren gurutzatu ez genituenak. Senperen bertan, aparkalekuek erakusten zuten lakuaren inguruan baieztatutakoa, jendea saldoka baino saltoka ibiltzeko lekua bazegoela, zirkuituaren ibilbideari hamar bat minutu kentzeko aukeran geundela.

Eguraldiaren grisari egotzi diote antolatzaileek partehartzearen eskasa, aurreko urteetakoekin alderatuta kezkatzeko modukoa jo dutena. Eta alde horretatik,

Urratsez

esan dezaket aurtengoa ez dela izan euri-tsuen, gogoan baitut oinetakoak blai eta galtzak lokatz, aurten baino jendetsuagoak ezagutu ditugula, hegoaldeetik heldutako autobus eta autoen ilarak Senperera egiteko Azkainetik hara metroka hurbiltzen zirela. Aurten ez dugu behar izan kotxea primeran eramatea primerako bidaia egiteko. Bainan ez da faltan bota Hendaiaiko ikastolako ondoko gunean goi-erritarren kanpalekua, babarrunak eta paella lagun urruñarren pozerako. Ez da aski izan eta antolatzaileek laguntza eskatzeari ekin diote. Orokorrean, ez dirudi euskalgintza bere une egokienean dagoenik, gure hedabideak jarraitu besterik ez dago. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ai ama!

Eskolara noa, eta maisurik ez da; ezta maistrarik ere: Ai ama, ama ail!

Udaberrian lehertu zen krisia, gereziek gorritzen hasi behar zuten sasoian. Herri normala ematen zuen hango hark bere muinoan kokaturik, bere kanpandorre zaratsua-rekin, bere eskola xumearekin; alabaina, berezia bihurtu zen goizetik gaue-ra: ez zeukaten nork irakatsia.

Ikastera joaten ziren haurrak eskolara. Halere, han ez zegoen ongi-etorria egin ziezaiekeenik. Astelehenetan joaten ziren, asteazkenetan, ostiraletan... astearte eta ostegunetan; baina, ikasgelan lezioa emango zienik ez zen.

Ohikoa eman nahi zuen herri hark, hala eskatzen baitzuen Kons-titutuzioak; halere ez zegoen ezkuta-tzerik kinka larri hura, porrot biri-bil hura.

CURRICULUMAK KALE. Herri har-tan ezin zen ikasketa-ardatz argirik adostu: haizeak nondik, helburuak han-dik. Inprobisazioa eta itxurakeria zen guztia, desgobernu bufoikara eta inpro-bisatu baten emaitza tamalgarria.

Alkateak agintzen zuen eskolan, ez irakasleak. Eta, alkate hark ez zekien alfabetoko marrazkiak interpretatzen: berdin zitzaion “p”, “t”, “k” edo “b”, “d”, “g”... ez baitzuen irakurtzen asma-tzen. Bokalekin moldatzen omen zen, baina ongi idatzi, “o” besterik ez zuen ongi idazten, zentimo erdiko txanpon baten laguntzarekin.

Alkatea bera zen haizearen mendeko nagusia: tokatzen zenean bere balkoian hortentsiak ureztatzea, eskolan *Hydrangea hortensia* eta arrosaren ordenako gainerako zuhaixkak ikasi behar ziren; tulipanak loratzen hasten zirenean bere terrazan, *Tulipa gesneriana* eta zitoriaren familia estu-diatu behar zen bere osotasunean.

Okerrena etorri zen espezie exotiko-ak deskubritu zituenean alkateak.



INIGO AZKONA

Orduan heldu zen maremagnuma. Kaosa.

ALKATEA, MAISU. Anabasaren erdian, Ameriketako Panpatik ekarritako landa-re itxuraz lerden eta zurixka bat, *Cortade-ria selloana* delako espeziea jartzea agindu zuen alkateak eskola-ume denen aurrean. Ikasleetako eroenak ere igarri zion hari luma-erratzaren itxura.

Eskolako lorategian landatzea agindu zuen alkateak. Ureztatzea eta ongarritzea. Begiratzea eta zain-tzea. Babestea. Erratz hura bihurtu zen eskolako totema.

Azken tantoa izan zen hori: maleta hartu eta han joan zen tren-geltokira irakaslea, azken irakaslea. Txartela erosi, etxera heldu eta antzarrak ferratzen hasi zen, bere bakardadean.

Garbiketa etorri zen berehala. Panpako erratza hartu eta bazter guztiak pasatu zituen alkateak.

Aldatu zion izena eskolari, kendu zituen paretetik geografia-mapak, koadroak, presidenten erretratuak. Erretiratu zituen liburuak, kaierak eta arkatzak. Izena aldatu zion herriari.


Joan ziren, joan, gurasoak agintaria-rekin hitz egitera. Galdetu zioten, galde-tu, zertara zetorren aldaketa ganorabako hura guztia. Ea ote zen umeek gehiago eta hobeto ikasteko. Ea ote zebilen herriaren mesedetan, giza harremanen mesedetan, mundua solidarioagoa izan zedin.

EZ ZIEN ERANTZUTEN. Zer dela eta dena hankaz gora? Jainkoaren agindu dibino bat, akaso? Nobel Saria jasotako medikuek formazio oker eta arriskutsu-ren bat detektatua al zuten herri hartako umeen hezurretan?

Esplikazioa zor zuela. Eta emateko.

Erantzun zien alkateak azkenean: “Lasai, holakorik ez dago. Da, igarri dezazuen nork agintzen duen hemen. Ez ahaztu!”. ■

« Eskolako lorategian landatzea
agindu zuen alkateak. Ureztatzea eta
ongarritzea. Begiratzea eta zaintzea.
Babestea. Erratz hura bihurtu zen
eskolako totema »



irudia:
Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Abiadurari jarriak



DANI BLANCO

I

Espazioa zati denbora
Halako zerbait naiz berez
bizi lekuak: airea, ura
A-8, Montmeló, Jerez.
Gurpil gainean noa sarrien
hidrokarburoak errez.
Egongo ez banintz bezala baina
arautua nago legez.

II

Laurehun zaldiko Mercedes berri
edo kopaturbo xaharra
hegan joateko preparatuta
baina txoferra lurtarra...
Hori ta gero tresneri ahulak
seinale, multa, radarra...
Enpeinatzia ez bada libre
zertarako da indarra.

III

Enpeinatzia gertatzen denez
eguneroko ogia
errepide bat bi norabide
ta betiko historia:
Bat ustez ondo bestea nere
eskuetan eroria
baina norbaitek elkartu ditu
errua eta zoria.

IV

Arma letala egin nauenak
ardurak baldin balitu...
ez soilik ezin izan nauenak
bere barruan kabitu.
Espazioa zati denborak
milioiak ematen ditu.
“Istripu” hitza asmatu eta
lasai eskuak garbitu.


V

Nahiz dena ez den abiadura
—hori argi gera bedi—
zenbat bizitza etenak edo
ebakiak erdiz erdi!
Gure biziak behar ote du
pedal baten pean segi?
Galtzea libre izanagatik
kentzea dago libreegi.

VI

Horra sei bertso abiaduraz
daukadan ikuspegiaz
aspertuxea bidejaleez
ta bidegabekeriaz.
Nahiz ta ez naizen hiztegi horren
oso aldeko egiaz
igual hitz egin beharko dugu
trafiko indarkeriaz.

DOINUA: Txoriak eta txoriburuak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Literatura

Karmele Jaio

«Pertsonaiek barnean uzten dutena interesatzen zait»

Gasteiz, 1970. Bi ipuin liburu eta bi nobela argitaratu ditu dagoeneko. Bigarren haurra argira –mundura– ekarriko du aurki: “Idaztean bizitzako esperientziek eragiten dute, baina egoerek ere bai. Duela hiru urte izan nuen lehen haurra eta orduan baino askoz denbora gutxiago daukat idazteko. Bigarren hau alde objektiboa da”. Musika airean (Elkar) bigarren nobelaren kariatara jardun dugu Karmele Jaiorekin.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Alex Larretxi

“Zure literatura emea da”. Saillapen txatxua al da nirea? Iraina ote, agian?

Ez dakit... Nire idazteko modua da, ez da behartua. Emea diozu... Emakumeak protagonista izatea aukeratzen dudan arren, nire helburua gizakiaz hitz egitea da, ez bakarrik emakumeaz, bai emakume baten esperien-

tziatik. Dena den, irakurleak emakume protagonista pertsona unibertsal sentitzea nahi nuke, haren esperientzia edozein gizakirena balitz bezala irakurtzea. Noski, dauzkan berezitasunekin, emakumea delako.

Honelako galderekin kontuz ibili behar dugu, ze, gizon bati ez zaio inoiz esaten “zein





Musika

“Familian musikari bat izateak eragina du [bikotekidea musikaria da], baina betidanik naiz oso musikazalea. Nire bizitzaren atzean beti egon da musika banda bat. Garai bakoitzean banda ezberdina dago, noski. Ni Rock Radikalaren garaikoa naiz: Hertzainak, Kortatu, RIP, La Polla... entzuten genituen. Gasteizko Jazaldiak ere eragin izan du nigan. Jazz musikarien artean Bill Frisell gitarra jolea dago, Jazzaldian ezagutu nuen. Edo Pearl Jam taldea. Biak agertzen dira nobelan”.

Los vascos

“Inguru erdaldun batean hezi nintzen, familian euskaraz –gurasoak lekeitiarrak izaki–. Ikastolan ikasi nuen gaztelaniaz. Hezkuntza guztia euskaraz egin zuen lehen belaunaldikoa naiz: esperimentutarako akuriak. Gasteiz asko aldatu da, guztiz erdalduna zen. Pentsa, gure etxebizitzan *Los vascos* ginen; euskaraz aritzen ginen bakarrak. Gaur ere Gasteiz erdalduna da, baina euskara entzuten duzu”.

“Nik nahi nuke irakurleak, emakume baten esperientzia kontatzen denean, gizaki guztien esperientziak ari dela sentitzea”.

gizon ikusten zaitudan liburu honetan”. Edo sinpleagoa: “Zure liburuko protagonista gizona da, zergatik?”. Hori ez zaio sekula galdetzen gizonari. Zentzu horretan gizona aukeratzea gauza neutrala da. Irakurleek neutral gisa hartzen dugu, eta gizon baten esperientzia irakurtzen dugu, baina gizaki guztien esperientziak dela pentsatzen dugu. Nik nahi nuke irakurleak, emakume baten esperientzia kontatzen denean, gizaki guztien esperientziak ari dela sentitzea.

Musika airean nobelan musikak badu munta. Bai. Beatriz talde bateko kantaria da. Libu-



ruaren bukaeran “betiko musika dago airean” esaldia dago. Musika zentzu horretan aitzakia modukoa da istorioa garatzeko. Hau da, garai batetik bestera gauzak asko aldatzen dira baina bizitzaren “musika” beti dela berdina edo antzekoa, jendearen kezak –belaunaldien artekoak– ez direla hainbeste aldatzen esan nahi dut. Baina besterik ere badago, niretzat garrantzitsuagoa, barne musika, norberak entzuten duena. Gure barnean badago musika moduko bat, beti-beti entzuten ez duguna –edo batzuetan baino ez dugu entzuten– eta bizitzan gertatu zaigun guztiaz osatuta dago, musika horren notak dira bizitzan gertatu zaizkigunak. Hori entzutea edota jasotzea nahi izan dut nobelan.

Emakume bat, etxeko leihotik begira... Horrela hasten da nobela. Bakardadea.

Hori da etorri zitzaidan lehen irudia, emakume bat, bakarrik bizi zena, eguna etxean leihotik begira pasatzen zuena. Bizitzaren lekuko sentitzen da, baina ez protagonista. Begira dago.

Bera Elena da, nobelako protagonista.

Hori da. Nobela guztian “aitzakia” da, bere barne pentsamendua entzutea da funtsezkoa.

Metaforaz osaturiko nobela al da?

Metaforak bizitzaren gauzez hitz egiteko bitartekoa dira, metafora asko dago liburuan. Musikaz hitz egiten dut, baina beste zerbaitez hitz egiten dut musika aipatzen dudanean.

Iraganera begira eraikia da nobela. Nostalgia kutsua dauka. Literatur kritikoei “kontuz nostalgiarekin” esaten dute.

Nik ez dut hori sentitu, sartu naiz emakume horren barruan [Elena] eta nostalgia bada, emakumeak sentitzen duena da. Gainera ez dakit nostalgia den, ez nago ziur. Iragana oso presente dago, baina iragana oso gaurko gauza bat bezala ageri da, ez da iragana, oraina da. Iraganean gertatu zaigun guztiak markatzen duelako gaur egun izateko dugun modua. Iragana ez da pasatu den gauza bat, antzinako

«Ezin dut asmatu fikzio bat, idatzi gabe»

Zer moduz nobelaren lanketan?

Ez zait inoiz gertatu ipuin bat idazten hastea eta nobela bihurtzea, edo alderantziz. Jeneralean burura etortzen zaidana ipuinaren formatua da. Nobelan —*Musika airean* kasuon— eroso sentitu naiz, bigarrena da. Lehena idatzi eta gero eskarmentua hartzen duzu, baduzu ibilbide bat egina aurrekoarekin.

Buruan galdera asko dudala hasten naiz idazten, ez daukat oso garbi zer kontatu behar dudan. Oso garbi daukat zein den gaia, zer esan nahi dudan. Gero fikzio bat asmatu behar dut hori esateko. Zer esan nahi dudan ere badakit, non hasten naizen badakit, irudi bat daukat —Elenarena, adibidez— eta non bukatuko dudan badakit gutxi gorabehera, norantz egin behar dudan ibilbide horretan badakit, baina ez nondik joan behar dudan, hor dago koska. Hasieran eskema bat daukat eta berau nola ordenatu erabaki behar dut. Buruan galderak ditut erantzunik baino gehiago. Ezin dut asmatu fikzio bat, idatzi gabe. Ezin dut pentsatu hau edo hori gertatuko

den, hori idazteak, sorkuntzak berak eramaten nau asmatzera.

Nobelaren gakoetako bat narrazioa eta elkarriketak egoki uztartzea izaten da.

Horretan kezka nuen. Elenaren barne kezka nahi nituelako kontatu... Hasieran horrekin egin nuen aurrera eta oso nobela geldoa izateko beldur izan nintzen, gogoeta eta hausnarketa gehiegi izatearen beldur. Orduan iraganeke kontuak oso modu laburrean tartekatu nituen, elkarriketen bitartean beste azpi trama batzuk sortu nituen bizitasun hori emateko. Dena den, nik idatzi dudan guztian garrantzi handiagoa ematen diot barne hausnarketari elkarriketei baino. Iruditzen zait, barne mundu hori, esan gabe uzten dugun hori dela inportanteena. Hau da, egunero bizitzen duguna —jeneralean oso azalean bizi gara—, eta benetan kezkatzen gaituena barnean uzten dugula pentsatzen dut. Niri, pertsonaiengan gehiago interesatzen zait barnean uzten dutena esaten dutena baino.

kanta bat bezalakoa da. Antzina-ko kanta entzuten dugu eta konturatzen gara hitz guztiak bada-kizkigula. Non demontre zegoen hori sartuta? Buruan noski. Uste dugu hitzak ahaztuta genituela, baina hor daude almanenatuta. Eta kanta zahar baten hitzak bezala beste kontu asko.

Bakardadea arnasten da hasieran eta adiskidetasuna nagusituz doa.

Bakardadeaz hasi nintzen hitz egiten eta bukatzen dut adiskidetasunaz. Galdera batzuk airera ateratzen dira, adiskidetasunari buruzko zalantza batzuk. Adin batera iritsita haurtzaroko adiskidetasun puru eta garbi hori, baldintzarik gabeko hori, posible da mantentzea, ala ez? Eta ezin bada, zergatik da ezinezkoa? Guk ez dugulako nahi, edo bizitzak berez bultzatzen gaituelako jarrera batzuk hartzera? Elena protagonistaren eboluzio hori kontatzen du nobelak. Elena erreta dago bizitzarekin, poliki-poliki ikusten da baduela zauri bat, iraganekeoa, eta nolabait hori konpondu gabe ez dela lasai bizi. Abiatu da, ordea, sendatzera. Bere asmoa munduan hori konponduta uztea da.

Belaunaldien arteko harremanaren —eta jatorri ezberdineko pertsonen arteko harremanaren— isla ere bada *Musika airean*.

Zahartzaroari buruzko gogoeta da: adineko

“Nobelan badago agintzeko modu bat, iraganean egon dena, eta adineko pertsonen galdu dutena. Lehen adineko pertsonen bazuten beren lekua. Agian 'egon' besterik ez zuten, baina gaur egun zenbaitetan 'existituko' ez balira bezala daude”

pertsonen beren bizitzaren gidaritza galtzeari buruz. Bat-batean seme-alabek agintzen dute. Elenak ez du inor etxean nahi, baina seme-alabek esan dutena onartu behar du. Nobelan badago agintzeko modu bat, iraganean egon dena, eta adineko pertsonen galdu dutena. Lehen adineko pertsonen bazuten beren lekua. Agian “egon” besterik ez zuten, baina gaur egun zenbaitetan “existituko” ez balira bezala daude, apur bat baztertuta. Ekialdeko kulturaren ez, baina gurean balioa kendu diegu. Hala ere, gure bizitzan ikasten eta ikasten goaz, esperientzia biltzen, eta zahartzarora iritsita ez ditugu aski baloratzen. Ematen du zer pentsatua, beraz.

Elena eta Beatriz. Beatriz gaztea, adineko Elenaren kontrapuntua da. Etorkina da Beatriz.

Pintzelkada da. Ez naiz gaian sartu sakonki. Baina, askotan ikusi dut egoera hori kalean: emakume —edo gizon— nagusi bat eta zaintzen duen etorkina. Beti sortu zait jakin-min hori. Zertaz hitz egingo dute hauek? Zer harreman izango dute? Hain ezberdinak al dira?

Beatriz pertsonaia lotsagabea da, fresca bat alegia.

Bai. Elenarekiko harremanetan talka moduko bat sortzen da. Baina Beatriz bera da Elenaren aldaketa gauzatzen laguntzen duena. ■

Ikus-entzunezkoak

Intereconomiaren garaia
aurreikusi zuen pelikula

Hegoaldeko euskaldunok: Lurreko Telebista Digitalarekin ugaldutako muturreko kateek ez al dituzte esnatzen zuen instintu ilunenak? Lasai, ez zarete bakarrak. Ezta aurrenekoak ere. Filmotekan begiratu eta 1995eko pelikula batekin egin dugu topo. Protagonistek, telebistako hizlari ultra-kontserbadoreez nazkaturik, zerbait egitea erabaki zuten.


GORKA BEREZIARTUA

ESKUMA MEDIATIKOAREN presioari buruz pentsatzeko aukera eskaintzen du, gaur egun ere, *The last supper* (Azken afaria) lanak. Stacy Title-ek zuzendu zuen, eta oro har B mailako produktua da: buxet eskasa, sakontasun handirik ez, batzuetan antzezlanaren tankera hartzen du pantaila handirako pentsatutako produkzioarena beharrean —antzerkilariei errespetu guztiarekin, noski—. Baina telebistaren kalitate labela hondora doan honetan, ez da beharrezkoa zeluloidearen harribitxi bat erabiltzea konparazioetarako.

Bost lagun biltzen dira ostiralero etxe batean, denak unibertsitatean ikasiak, aurretakoak, gazteak. Politikaz, gizarteaz, ekonomiaz aritzen dira eta denak ernegatzen dituzte berdin telebistan ikusten duten Norman Arbutnot aurkezleak (Ron Perlmanek jokatzen du rola). Haren esaldi bakarra adituta ulertzen da zergatik: “Neu naiz aurrenekoa onartzen herrialde hau indioei kendu genia. Baina, edozein modutara, zer ari ziren egiten beraiek? Arkuekin geziak jaurti eta maskorak txanpon modura erabili”. Intereconomiako edo Veo Televisioko tertulien mailakoa da arrazoia. Baina, yankee hauek beti aurretik, hamabost urte lehenago esana da. Efektua, ordea, ez da oso diferentea. Orain zure salako lasaian sutzen zaituen ateraldiak sukaldeko goxoan haserretuko ditu filmeko protagonistak. Luke (Courtney B. Vance) batez ere. Hasiko da esaten kontserbadoreak ez daudela geldirik, eta beraiek aldiz, ezker-tiar, liberal, progre baina hizketan besterik ez direla aritzen.

Ekintzarako abagunea handik gutxira izango dute. Pete-ek (Ron Eldard) auto-istripua izango du eta gizon batek lagunduko dio ibil-

gailua etxeraino eramaten. Afaltzera gonbidatuko dute. Zack da: Golkoko Gerrako beterrakoa, arrazista, juduen aurkakoa, nazismoaren defendatzailea. “Adolf Hitlerrek bai asmatu zuela” eta “Holokaustoa ezin da frogatu”



esaka hasiko da. Material horrekin, ezin afari lasairik izan. Eztabaidak tenperatura hartuko du eta Zackek labana jarriko dio ezterrari lagunetako bati. Tentsioa. Urduritasuna. Marc-ek (Jonathan Penner) aiztoa sartuko dio bizkarretik gonbidatuari, eta seko gertatuko da. Orduan hasiko da jokoak: bost lagunek etxeko baratzean lurperatuko dute gorpua, eta gainean tomateak landatuko.

Gero, jende gehiago hasiko dira mahaira gonbidatzen. Hitz egiten utziko diete eta, pareta ukizterainoko eskuindarrak direla erakutsi dutenean, pozoitu egingo dituzte. Hori egiteko arrazoa, sinplea, Lukek formulatzen du: “Txarra al da norbait hiltzea, heriotza horrek mundua leku hobe bihurtzen badu?”.

Biolentzia politikoa, masa hedabideak eta zinismoa

Tomatez gorritzen joango da etxeko baratzea: apaiz homofobia, anti-ekologista, anti-abortista, liburu zentsuratzaila, denak landareen ongarri. Azkenean Norman Arbuthnot telebistako izarra afaltzera gonbidatzea lortuko dute. Eta hor sortuko dira kontraesanak: pantailan esandakoagatik etxeko kideen anatema zen gizona, uste baino aurrerakoia da afaria sudur-aurrean duela. Haren erretorika atzerakoia ez da soldata on baten truke egindako lana besterik. Sinesten ez dituen arrazoiak emateagatik, zinikoa da; baina ez kontserbadore fededuna. Hala ere, ordura arteko ohiturari jarraituz, hil egin nahiko du Lukek, eta eztabaida piztuko da bost lagunen artean. Horretaz baliaturik, eta berekin egin nahi dutenaz jabetuta, Arbuthnotek pozoia botako du afaltiarren kopatan.



Filmeko protagonisten hiru biktima goiko irudietan: aurrenekoa, Golkoko Gerrako beteranoa. Bigarrena, apaiz homofobia. Hirugarrena, ustez atzerakoia zen telebistako aurkezlea.

Pelikulak, bere arinean, bizpahiru ideia interesgarri eskaini diezazkioke neo-kontserbadoreen miztoak dantzan ikusteaz nazka eginda dagoen tele-ikusleari. Hasteko, protagonistekin identifikatuta sentituko da: orain LTDarekin pairatzen dugun telebista ereduak kable bidezko sistemarekin hedatu zen AEBetan aspaldi. Bigarren planoan, honako irakurketa egiteko parada ere ematen du filmak: eskala txikiko biolentzia politikoa ez daukala zereginik masa hedabideen aurrean. Baratzeak gorpua bezainbeste ugaritzen dira bost lagunen arteko kontraesanak eta gainera, etsaietan etsaia, egunero ezkerari mailuka ari den Norman Arbuthnot, audientziengatik ari da borrokan, ez ideia batzuegatik. Puntu horretara iritsita, filmeko protagonistek norabidea galduko dute. Etsaia ezin du pertsona bakarrak sinbolizatu eta arazo “erreal” azalduko da: askoz okerragoa dela hedabideen merkatua –aurkari ikusezin, objektibizatu, sistemiko hori– benetan ideia erreakzionarioak dituen edozein pertsona baino.

Ez da lezio txarra salaraino zaborra tonaka iristen zaigun garaioan. Intereconomiarekin haserretzea alferrikakoa da. Are alferrikakoagoa kate horretako aurkezleren bati lepoa bihurritu nahi izatea. Zer egin, Lenin? Filmak ez du erantzunik horretarako. Sistemaren garaipena kontatzen mugatzen da. Baina gutxienez balio du arerioa pertsona atsegin eta aurrerakoia izan daitekeela deskubritzeko. Kate ultraeskuindarrak bezain arriskutsu izan baitaitezke ustez pluralagoak diren zenbait hedabide, baita publikoak badiara ere. ■



Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Liburuak

KRITIKA

Basamortua.
J.M.G. Le Clézio. Itzulpena: Luis Berrizbeitia.
Elkar.
419 orrialde. 25,25 euro.

Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Zein da basamortuago?

JEAN-MARIE GUSTAVE LE CLÉZIOK (Niza, 1940), “nouveau roman” korrante frantsesaren ildotik ekin zion ibilbide literarioari. Mugimendu experimentalistaren garaia besarkatzen duten hasierako eleberriek, hiriko garapen teknologikoak irensten hasia zuen gizaki garaikidearekiko kezka helarazten dute. Baina 1969. urtetik aurrera, bestelako bizimodu, kultura eta espazioetara ihes egin nahiak, aire berriak ekarri zizkion haren obrari.

Idazleak, mundu desberdinen arteko talka kulturalak aurkeztu ditu *Basamortua* izeneko lanean. Luis Berrizbeitia idazle, poeta eta itzultzaileak Jokin Zaitegi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2008ko Nobel Saridunaren eleberria euskaratzeagatik.

Bere obran nagusitzen diren konstanteak topatzen ditugu *Basamortuan*: haurren protagonismoa eta espazio puruagoen bilaketa. Haurrak, eguzkiaren sartu-irtenak edota animaliak bezala, naturaren sinbologiaren osagai dira; zibilizazioak kutsatu gabeko izaki aratzak. Era berean, basamortua zorionaren eremuan kokatzen da. Gizakiak naturarekin bat egiteko espazio idiliko baten antzera deskribatzen zaigu (“Egunak beti berdinak dira hemen, Cité-an, batzuetan ez baitakizu zein egunetan bizi zaren ere”, 108. orrialdean). Baina utopiaren planteamenduetan jausteko arriskua duen mistizismoaren xinpletasuna gaingidituz, txanpon bera osatzen duten bi aurpegiak erakusten zaizkigu: naturaren indarrak ederrak eta bitalak izanik ere, batzuetan gordinak eta bortitzak dira (“Cité honek daukan gauza bitxia da mundu guztia dela oso pobrea eta halere inor ez dela kexatzen sekula”, 84. orrialdean).

Ipar Afrikan, basamortuko bazter zehaztugabe batean, Marokoko konkista garaian frantsesen aurka borrokatu zuten gerlari urdinen leinuko neskato bat bizi da. Lallak, Hartani artzainarekin, zerumuga hautseztatuari so, suaren inguruan Aammak kontatzen dizkion istorioak adituz, igarotzen ditu egunak. Baina, “Uda hasierako goiz batean sartu zen gizona Aammaren etxera” (185. orrialdean), eta momentu hartatik aurrera ekingo dio Lallak Europarako bideari.

Bidaia, *descensus ad inferos* motiboaren berri ematen du: kanpoko espazioaren deskripzioa, Lallaren barne munduaren ispilu bilakatzen da. Marseillea “bada hustasunaren beldurra, gabeziarena, gosearena...” (267. orrialdean), basamortua eta herrialde kolonizatzailearen eredu. Idazleak, ustezko herrialde zibilizatu eta aurreratuan, ikusezin bilakatzen den esklaboen arteko bizitzaren koadroa eskaintzen du, garapenaren arraildura ezkutuez hausnartu dezagun. Izan ere askotan, formak eta edukiak ez datoz bat. ■



Irlanda, ‘Erlea’ aldizkariko gai nagusi

Bernardo Atxaga zuzendari duen *Erlea* aldizkari literarioak bigarren zenbakia publikatu zuen aurtengo martxoan. Lehenengoan AEBetako mendebalde basatia izan zen protagonista eta oraingoan Irlanda da gai nagusia. Paddy Woodworth arduratu da gai hori jorratzeaz. Berriz ere luxuzko kolaboratzailek osatu dute *Erlea*,



Erlea 2.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia.
128 orrialde.
11,40 euro.

tartean Harkaitz Cano, Iban Zaldia, Koldo Izagirre, Aurelia Arkotxa, Jimu Iturralde, Aritz Galarraga, Aingeru Epaltza, Miel A. Elustondo, Mari Jose Olaziregi eta Beñat Sarasola. Duela gutxi zendutako Joxemiel Bidador ere oroitu dute, Patxi Huarte Zaldi *Eroaren* marrazki baten laguntzaz. ■

Marco Polo, etxeko txikienentzat

Txertoa argitaletxeak *Nor da?* izeneko sailean ematen ditu argitara etxeko txikienentzat beren-beregi prestaturiko biografiak. Marco Polorena, besteak beste. Sara Cordónek idatzi eta Martin Ansok euskaratutako lan hau bederatzi urtetik hamabira bitarteko gazteei zuzendua dago, eta abenturazale veneziarren bizitza modu atsegin eta hezitzailean kontatzea du helburu. Horretarako, liburuko testua ilustrazio koloretsuz jantzita aurkeztu dute, eta liburuaren bukaeran irakurritako edukiei buruzko galderak daude eskura, nahi duenak erantzun ditzan. *Marco Polo abenturazalea* liburuari esker munduaren ekialdera bidaiatzeko aukera izango dute gainera irakurleek, fantasiaz eta exotismo inguraturik. ■



Marco Polo abenturazalea.
Sara Cordón.
Txertoa.
124 orrialde. 9,45 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Sentipenei jarraitu, eramaten zaituzten lekuraino



Uneak.

R.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 34'23".
10 euro.

R ez da talde berria, nahiz eta ez den astebururo kontzertuak ematen ibiltzen. Pentsa, 2000 urtean Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketako Euskal Herriko talde onenaren saria jaso zuten. Hala ere, beraien bidea jarraitu dute denbora eta erritmo propioarekin, lan honetan bezala. Andoaingoak dira eta orain dela urte gutxi hirukote bilakatu ziren. Post-hardcore ildoan irudimen handiz mugitzen dira, erritmo pausatuarekin, baina kolpeka eta instrumentuekin etengabe

elkarrekin jolastuz. Giro oso bereziak lortu dituzte, tartean psikodelia zein erritmo tribalak aurki daitezke; eta gitarretan stonerretik hurbil dauden soinuak ere antzeman daitezke. Baina, jakina, tarteka badute intentsitate handiagoa eta, zergatik ez, zoramen puntua. Barrenak eta musikak eskatzen dietena egiten dute, eta dotoreziarekin gainera.

www.myspace.com/rtaldea

R

«Hirukote izateak gehiago bultzatu gaitu gauza berriak bilatu eta probatzera»

Zuen ibilbidea ziklotakoa izan da. "Une" berezien zain egoten zarete lan egiteko?

Egia esan gure jarduna etengabea izan da beti. Ez agian diskoak kaleratu eta zuzenekoak eskaintzearen maiztasunari dagokionez, baina bai elkartu eta musikaz elkarrekin gozatzeko garaian. Halere, egia da zuk diozuna, iristen dela "une" bat non gure lana disko batean laburbiltzen dugun eta jendaurrean eskaintzera animatzen garen.

Dezente esperimendu duzue giroekin, sonoritateekin, erritmo aldaketekin eta instrumentuen arteko joko ia jazzeroekin. Ez da hala?

Disko honetan nabarmenagoa izan da inprobisazioari eta askatasunari eskainitako lekua. Orain hirukote izateak ere lagundu gaitu horretan, gauza berriak bilatu eta probatzera bultzatu gaituelako egoerak berak.

Post-hardcorearen eremuan eroso mugitzen zarete, ezta? Badirudi gaur egun inork ez duela post-hardcorea errebindikatzeko.

Beti sartu izan gaituzte esparru horretan. Oso gustuko ditugu talde horiek, baina argi dugu bakoitzak bere bidea egiten duela. Ez da aldarrikapen bat, ezta korrontearen aurka joan nahia ere.

Bestalde, gitarretan baduzue zerbait Leitzarango desertukoa...

Hego haize hotzak astintzen gaitu, beti edan dugu desertuetako uretatik. Iturri oparoak daude edonon, beraietatik edatea besterik ez dago norberaren barrua busti eta asezteko.

"Taupadak azkartu", "Emaiozue korda erlojuari", "Beste egun baten beteko da", *Uneak*... Denbora obsesioa al da zuentzat?

Egoerak deskribatu nahi ditugu, kanta bakoitza une bat da. Denborarekin obsesioa baino gehiago, sentimendu batzuk adierazteko modua da.

Minimalista eta oso dotorea diseinua eta argazkiak. Arratsoko azken argitan lortutakoak dira?

Jakina. Eguzkiaren azken izpiek eskaintzen duten argitasunak misterio kutsua ematen die irudiei. Diskoak osotasunean duen konzeptuarekin bat datoz, une desberdinekin. ■



Ezpalak

JON TORNER

Leioako Umore Azokak 150 emanaldi jasoko ditu

LEIOAKO Umore Azokaren 11. edizioan 150 emanaldi eskainiko dituzte 49 konpainiak. Jaialdian parte hartuko duten hamabi euskal taldeetatik seik obra bana estreinatuko dute: *Jai alai* (Ados Teatroa & Aukeran dantza konpainia), *Udamina* (Gaitzerdi Teatroa), *Dantza desberdinak* (Despertar los sentidos), *Exodo* (En la lona), *Diva di palo...* (Tearto Teatro) eta *Camping renove* (Trapu Zaharra). Leioako hemeretzi txokotan izango dira ikuskizunak, maiatzaren 20tik 23ra bitartean. Kale antzerkiaz gozatzeko parada eskaintzeaz gain, sektoreko programatzaile eta sortzaileen topaleku izan nahi du Umore Azokak. Egitarau osoa: www.umoreazoka.org.



Literaktum: Letren eta lengoaien festa Donostian

LITERATURA, musika eta artea uztartuko ditu Donostiako Literaktum jaialdiak, hilaren 25etik 29ra bitartean. Juan Madrid idazle eta gidoigilearen *Literatura baliagarri baten aldeko manifestua* hitzaldiak irekiko du egitaraua, eta Nicolas Ridoux eta Andres Neumanek dekrezimenduari buruz eskainiko duten solasaldiak emango dio segida maiatzaren 26an. Hitzaldiez gain, *performanceak*, poesia errezitaldiak eta erakusketak izango dira. Ekimenari buruzko informazio gehiago eta egitarau osoa: www.donostiakultura.com.

Aramaioko bertsolariek irabazi dute Arabako Kua-drilla arteko txapelketa, finalean Gasteizko Kakiturri-Ehari taldekoei irabazita. Gabiriko (Gipuzkoa) Osinalde sarian, bestalde, Mikel Artola alegiarra nagusitu da.

Eduardo Hernandez Asiain

biolinista corellarra hil zen pasa den asteartean, 99 urte zituela. Nafarroako XX. mendeko musikari garrantzitsuenetako gisa onartua, Kuban hasi zituen ikasketak eta Madrilgo kontserbatorioan sakondu zuen biolina jotzeko teknika. Ondoren Europako hainbat herrialdetan ibili zen ikasketak zabaltzen. Erretiroa hartu ondoren biolina jotzen jarraitu zuen urte luzez eta Sarasateren obraren munduko interprete onena izan zela diote adituek.



Cristobal Balentziaga jostunaren omenezko erakusketa "esperimental" zabandu du Bilboko Arte Eder Museoa. *Mugaren diseinua* izenburupean, estilo klasikoa eta abangoardia uztartu ditu erakusketak, sortzaile getariarrak bere lanetan egiten zuen legez. Guztira, Balentziagaren ibilbideko 35 jantzi bildu dituzte.

Mundumira

kulturen festa Antzuolan (Gipuzkoa) egingo da aurtan, hilaren 29 eta 30ean. Ohi bezala, musika izango da protagonista nagusia, gastronomiak, artisautzak eta antzerkiak ere lekuri izango duten ekitaldian. Ojos de Brujo taldearen kontzertuak piztu du ikusmin handiena.



[www.mundumirafesta.com]

● **Mikel Unzurrunzaga "Makala" disko jartzaileak Berrian:** «DJ batentzat, biniloa da txirrindulari batentzat bizikleta izan litekeena. Egia da, egun badaude beste formatu batzuk, eta denek balio dute. Nik ez daukat inolako arazorik nire saioetan musika digitala jartzeko. Hori bai, erositakoa, ez dut pirateatutako musikarik erabiltzen. Digitalean erosten baduzu, momentuan bertan daukazu zuk nahi duzuna, euro bat kantu baten truke, gutxi gorabehera. Horrek denbora asko kentzen dit hautaketa egiteko orduan, baina hor dago DJaren lana, bere errepertorioarentzat zein kantu den egokia jakitea».

● **Javier Echeverria filosofoak Deian:** «Liburu elektronikoa ez da garatuko estandar europarrak ez dagoen bitartean; erosten dugun aparatua edozein izanik ere, argitaitxe guztien liburuak eskuragarri izan arte. Espainiako Estatutan gauza absurdua gertatzen da: argitaitxe bakoitzak bere estandarra aukeratzen du, guztiak dira desberdinak eta, ondorioz, egindako inbertsioa galdu egingo dute, bezerorik ez baitute izango. Instituzioen webguneetatik jaisten diren liburu elektronikoen sektorean guztiak ongi funtzionatzen du, estandarra ordenagailu guztietan dagoen PDFa den heinean».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

UNAI BREA

Erretzaileentzat

Thank you for smoking. Christopher Buckley.
Argitaletxea: Random House. 1994.

ETXEA ALDATU eta hiruzpalau urtera, ezustean, kutxa baten hondoan agertzen den liburu horietakoa da *Thank you for smoking* (Eskerrik asko erretzeagatik) eleberria. Ia-ia beste ezer eskura ez neukalako hasi nintzen irakurtzen eta... ze sorpresa atsegina! Ondo idatzia, inteligentea, ironikoa, umoretsua... Orain gutxi jakin dut egileak, Christopher Buckleyk, George Bush aitaren diskurtsoak idazten zituela, hura munduko presidentea zen garaian. Eta ezinegona sortu zait: nola gustatu zait horrenbeste halako tipo batek idatzitako zerbait? Zer ez dut ulertu? Edo zer egin du txarto Buckleyk?

Berriz ekin diot *Thank you for smoking* irakurtzeari, enigma horiek argitu nahian, eta lehenengo kapitulua aski izan zait oroitzeko. Hasteko, primeran idatzita dago, eta hori bada asko, edukitik harago prosa on baten balio estetiko hutsaren defentsan hamaika ezta-

baidatan borrokatua naizen honentzat. Eta bestetik, Buckleyk ez zaitu behartzen posizio ideologiko garbi baterantz, nahiko libre uzten du irakurlea aukeratzeko garaian. A bai, barkatu, eleberria zeri buruzkoa den ez dakizula. Bada, protagonista Nick Naylor da, tabakoaren onurak aldarrikatzeko —eta arriskuak gezurtatzeko— sortua den elkarte bateko komunikazio arduraduna. Naylorrek koadrillatxo bat osatua du armagintzaren industriarentzat eta alkohol ekoizleentzat lan zikin bera egiten dutenekin: MoD, “heriotzaren merkataria” esan nahi duen akronimoa. Azken batean, Bushen beltz bategandik zer espero behar genuen bestela, norbanakoaren askatasuna da *Thank you for smoking*-en gaia, baina askatasuna, anglosaxoi era klasikoan ulertuta. Liberalismoa ere esaten zaio. Ez da nire gustuko jana, baina nobela gomendatzen dizuet berdin. ■



Nobelan oinarrituta
2005ean egin zuten
filmaren afixa.

Irakurri Elhuyar
aldizkaria
zure ordenagailu
berritik

eta %20 merkeago!

Uztaila baino lehen Elhuyar Zientzia eta Teknologia aldizkariak harpide egiten bazara, urteko harpidetza % 20ko deskontua lortzeaz gain ordenagailu ultraeramangarri baten zozketan sartuko zara.

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin
+34 943 36 30 40 zenbakira.

Harpidetza internet bidez egiteko, sartu
<http://www.zientzia.net/elhuyar> webgunean
edo idatzi mezu bat **harpidetza@elhuyar.com**
helbidera.



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa


mutualia
laguntzari esker

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 36 30 40 · Faxe: 943 36 31 44

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Ez arra. Usoaren okela. 2. **Argazkian**. Suil su gabe. 3. Burdina lantzen zen lantegia. Sagardotegiaren atal. 4. Perkusio-instrumentu. Garoa, iratzea. 5. Jainko grekoa. Garbitu, xahutu. Ekain (Bizkaian). 6. Pipia, zedena. Egonarazi. 7. Ospetsu, entzutetsu. Geziak jaurtitzeko armak. 8. Nahaste moldaeraza. Itsasoan barneratzen den lur-zatia.

Goitik behera:

1. Gauza exotikoen zaletasun. 2. Mila milako kopurua. 3. Adierazi. Errepikatuz, loguraren eulia. 4. Landa, salbu. Oihana. 5. Edanarazi, edaten eman. 6. Gipuzkoako ibaia. Aluminioaren sinbolo kimikoa. 7. Saldu aditzaren infinitiboa. Fruitu, emaitza. 8. Lurra lantzeko eta harrotzeko lanabes. 9. Kizkurra. 10. Biloa. Nauka. 11. Joan den gauean. 12. Uztai. 13. Uneko egunean. 14. Hoteletako ikur. 15. Gai likatsua.

Sudokuak

Erraza

2			3	4		6	1	
5			9		2			8
	1				7			4
1	5				6		3	7
	8		1		9		4	
9	6		4				5	1
6			5				8	
4			7		8			3
	3	1		9	4			5

Zaila

				9	7	6		
					2	1	7	
1			6	8				3
		4		6				
	6	3				4	2	
				3		9		
5				1	8			4
	4	9	5					
		1	7	4				

Elefanteak aztergai

Elefanteen biziraupenaz ardura-tzen den GKE batek elefantei buruzko ikerketa egitea erabaki du. Gai ugari ukituko dituztenez, hainbat herrialdetako espezialistak bildu dituzte: euskalduna, katalana, galegoa, frantziarra, estatubatuarra eta alemana.

Lan bana idazteko eskatu eta gero, epea amaitutakoan hauek jaso dituzte: *Elefanterri: elefanteen nazio nortasuna eta Afrikako deskolonizazio prozesua*, idatzi du euskaldunak. *Elefanteen bideragarritasun ekonomikoa mundu globalizatuan*, katalanak. *Zergatik idatzi elefantei buruz?*, galegoak. *Frantziarrak berriz: Elefanteen sexu-*

barremanak. Estatubatuarrak lan hau entregatu du: *Elefante kumeen psikologia: traumak eta arazoak nola ekidin*.

Alemaniarra, aldiz, azaltzen ez. GKEaren ardurdunak kezkatzen hasi dira eta sakelakora deitu diote. Iristear dagoela erantzun die eta mesedez, itxaroteko hamar minutu.

Hamar minutu eta segundo batera sartu da egoitzara. Erosketa-gurditxo moduko batean hamabost ale mardul dakartza. Lehenengoa atera eta izenburua irakurri du. *Elefanteak: Ikerketan lanaren oinarriak finkatzeko irizpideak*. *Lehen zatia*.

Soluzioak

8	3	1	2	9	4	7	6	5
4	2	5	7	6	8	1	9	3
6	9	7	5	3	1	4	8	2
9	6	2	4	7	3	8	5	1
7	8	3	1	5	6	2	4	9
1	5	4	8	2	6	9	3	7
3	1	9	6	8	7	5	2	4
5	4	6	9	1	2	3	7	8
2	7	8	3	4	5	6	1	9


Erraza

Zaila

9	5	3	5	9					
2	8	1	7	4	6	3	8	1	7
6	4	9	5	2	3	8	1	7	
5	3	7	9	1	8	2	6	4	
7	2	5	4	3	1	9	8	6	
9	6	5	8	7	5	4	2	1	
8	1	4	2	6	9	7	3	5	
1	7	2	6	8	4	5	9	3	
4	9	6	3	5	2	1	7	8	
3	5	8	1	9	7	6	4	2	

Ezker-eskuin: 1. Eneka. 2. Xistrea. 3. Oia. 4. Dolare. 5. 10. 6. Urtia. 7. Sal. 8. Aitzur. 9. Kitarra. 10. Ilea. 11. Part. 12. Arku. 13. Gaur. 14. Izar. 15. Ika.

Goitik behera: 1. Exotismo. 2. Milioi. 3. Etsan. 4. Al. 5. Edaran. 6. Urtia. 7. Sal. 8. Aitzur. 9. Kitarra. 10. Ilea. 11. Part. 12. Arku. 13. Gaur. 14. Izar. 15. Ika.



NOBEDADEA



Atlantika

zibilizazioen kode ezkutua



29 euro

ARGIaren harpidedunek
%15eko deskontua

Argitu ezazu antzinako zibilizazioen
kode ezkutua eta bizi milaka abentura
jainkoen laguntzarekin.



+8



2-4



20-40 min.

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

Luditoys

Zientzia eta teknologia

JABIER AGIRRE

Ez egin itsuarena: zaindu begiak

MUNDUAN AGERTZEN DIREN itsutasun kasuen %80 ez lirateke gertatuko aldian behin oftalmologoarengana joango bagina. Osasunaren Munduko Erakundeak emandako datu horrek argi eta garbi uzten du prebentzioa ezinbestekoa dela ikusmeneko trastornoak edo asaldurak saihesteko. Arazoa, zoritxarrez, betikoa da: pertsona askok aldizkari bat edo produktuen etiketak irakurtzeko ahaleginean zailtasunak eduki arte itxaroten dutela medikuarengana joateko.

Prebentzioa da, beraz, armarik onena. Eta bide horretan, oftalmologoarengana aldian behin joateaz gain, badira zure begiak zaindu eta ikusmena egoerarik hoberenean mantentzeko beste moduak ere:

Antioxidatzaileetan aberatsa den jan-neurria.

Zenbait ikerketak frogatu dute betakaroteno, zink eta A, C eta E bitamina ugari dituzten elikagaiek lagundu egiten dutela zahartzearekin lotuak dauden ikusmeneko trastornoak (katarata, glaukoma, endekapen makularra eta antzekoak) aurre hartzen. Elikagai horiek kolore laranja eta horia duten berduetan, zitrikoetan, arrautzetan, esnekietan, fruitu lehorretan, arrainetan eta zereal integraletan aurkituko dituzu.



Ordenagailuekin lan egiten baduzu: Arreta-neurriak hartu beharko zenituzke, ikusmena galtzaile atera ez dadin. Mantendu 50 zentimetro inguruko distantzia begien eta pantailaren artean, argi naturalarekin lan egin, eta 10-15 minutuz behin atsedenditxoak egin, begirada urrutira zuzenduz eta segundo batzuetan begiak kliskatuz. Jakin beharra dago, dena den, ondo erabiliz gero, pantaila begietarako entrenamendu egokia izan daitekeela. Nazioarteko Optometria Zentroak egindako azterlan baten arabera, bideojokoek ikusmen periferikoa, ikus-oroimena eta begien mugikortasuna hobetzen dute.

Kontuz mugikorrarekin. Aparatu horiek igorritako erradiazioek inflamazioa eragin dezakete begiko ehunetan, enfokatzeko gaitasunari eraginez. Kontua ez da alarma piztea mugikorra erabiltzen dutenen artean, gomendioa erabilera zentzuzkoa izatea da.

Lerro zuzenak ikustea kosta egiten bazaizu, edo objektuak apur bat deformatuta edo zirriborrotu –batez ere gaeuz– ikusten badituzu, eska iezaiozu hitzordua oftalmologoari. Ez zaizu damutuko.

Babeslea: iametza Interaktiboa

GIB birusa non “ezkutatzen” den badakigu jadanik

HAART terapiari esker, hiesa duten gaixoei kontrolpean eduki dezakete gaitza, baina terapia utzita, GIB birusa berriz hasten da ugaltzen, “nonbait” gordeta egon eta gero. Berriki, gordeleku hori aurkitu dute John Hopkins Unibertsitatean. <http://ttiki.com/13229> (Euskaraz)

Irentsitakoan abisatzen duten pilulak

AEBetako Bihotzaren Elkar-teak dio gaur egun gaixotasunen tratamenduan dagoen arazorik handiena dela gaixoei ez dituztela behar bezala hartzen ematen zaizkien sendagaiak. Alegia, piper egiten dutela sarri. Horri aurre egiteko asmatu dute, AEBetan, behin hartuta medikuari “seinale” bat bidaltzen dioten pilulak. <http://ttiki.com/13230> (Gaztelaniaz)

Belarriko ebakuntzak hobetzeko tresna

Kasu honetan asmakuntza ez dute AEBetan egin, Euskal Herrian baizik. CEIT-4ko ingeniariak eta Nafarroako Unibertsitateko medikuak aritu dira elkarlanean, barne-belarriko ebakuntzek entzumenari eragin diezaioketen kaltea gutxituko duen tresna sortzeko. <http://ttiki.com/13231> (Euskaraz)

Unai Brea

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zer mihilu eta zer amabirjin!

MILIKUATAR LAGUN BAT bere abizenaren nondik norakoak argitu ezinik dabil azken urte hauetan. Hau eta antzeko beste axaleko aitzakia batzuk tarteko, ehunka urtetan euskaldunontzat bestetxe izan den Madeira uhartean naiz. Madeiran naiz gainezka! Hau da hau landarediaren oparotasuna...

Milikua mihilutik datorkiola diot lagunari, Funchal, uharteko hiriburua izena bezala. Portugesezko *funcho* euskal mihilua da, *Foeniculum vulgare*. Iritsi eta nonahiko da mihilua: bide bazterretan, baratze, lorategi... baita tapiz edo alfonbretan ere. Uharte hau bestetxe zuten euskaldun arrantzale haiek beste bestetxe zuten Islandiako sumendiaren purrustada dela-eta, hemengo aldia ia astebete luzatu zaigu. Ustekabeko egun hauetan osatu ederra eman diogu bisitari; baita mihilu alfonbrearekin estropezu egin ere. Fatimako amabirjinaren irudia hemengo loraldiaren oparoa ezagutzera ekarria dute, errezo batzuk eskaini truke. Ni beregana ez nintzateke berehalakoan joango eta, jata ez zait bada bera niregana etorri, alajaina!



JAKOBA ERREKONDO



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

60

Minuturo-minuturo 60 golde baso hondatzen dugu munduan, Kontxako badia adinako bi, minuturo...

300

Gizakiontzat garrantzitsuak diren 300 landare espeziek saguzarren beharra dute bizitzeko.

5.000

Txinan ezagutzen diren 30.000 bat landare espezieetatik, 5.000 baino gehiago sendabelar gisa erabiltzen dira.

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongarri organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Esklabotzaren mendeurren ahaztua



WWW.AWESOMESTORIES.COM



NICK.FREJOL.ORG

Ezkerrean, haur esklaboak, 1869an Zanzibarren ontziratuak, *Daphne* itsasontzian. Alboan, Fernando II.a Aragoikoa, hiru mende eta erdi lehenago, dekretu baten bidez, esklaboen salerosketa sistematizatu abiarazi zuena.

TOLEDO, 1510EKO URTARRILAREN 22A. Fernando II.a Aragoikoak 50 esklabo afrikar Karibera bidaltzeko dekretua sinatu zuen, La Española –egungo Dominikar Errepublikak eta Haiti– uharteko urte-meatzetan lan egin zezaten. Horrenbestez, eskala handiko esklabo trafikoaren bidea zabaldu zuen.

1442an, portugaldar esploratzaileek esklabo afrikarrak ekarri zituzten lehenengoak Europara. Hurrengo hamarkadetan, Afrika mendebaldean hainbat portu ezarri eta esklaboekin trafikatzeko hasi ziren. Kolon Amerikara iritsi ondoren, espainiarrek urrea aurkitu zuten han, eta esklaboak baliatu zituzten hura erauzteko. Hasieran Karibeko jatorrizko biztanleak, tainoak, egin zituzten esklabo. Baina urte gutxitan, tainoen %90 desnutrizioak eraginda edota Mundu Zaharreko gaixotasunek jota hil ziren. Espainiarrek ezin zituzten portugaldarren esku zeuden esklaboak eskuratu, eta portugaldarrek ezin zuten espainiarren urrea ukitu. Azkenik, itun baten bidez, espainiarrek urrearen parte bat portugaldarrei ematea adostu zuten, urre gehiago erauziko zuten esklabo afrikarren truke.

Fernando Katolikoaren dekretuaren bidez, Amerikara ordura arte

bidalitako esklabo multzorik handiena eramane zuten; esklaboak soilik arrazoi ekonomikoengatik hartzen zituzten lehen aldia zen. David Keys historialari eta BBCko kolaboratzailearen ustez, dekretua “historiako dokumentu garrantzitsuenetakoa da, gizakien historia hemezortzi urte lehenagoko Amerikako Aurkikuntzak bezainbeste aldatu zuena”.

Esklabotza ikertzen duen Wiberforce Institutuko David Richardso- nek dioenez, “1510eko erabakiak beste aro bat abiatu zuen, europarren jardura kolonialen aro, baina nazioarteko komunitate akademikoak ez du sekula gertaera hari buruzko ikerketarik egin”.

Berriki, hainbat herrialdetan esklabo trafikoaren eta esklabotzaren abolizioaren bigarren mendeurrena “ospatu” dute (ikus ARGIA 2197. zbkia.) gaur egun sekula baino esklabo gehiago dagoen arren: zehazki, 27 milioi, kolonizazio garaian Afrikatik Amerikara eramane zituzten hamabi milioien bi halako baino gehiago.

Baina inor ez da gogoratu –edo inork ez du gogoratu nahi izan– esklabo afrikar trafikoaren hasieraren bosgarren mendeurrenaz.

Arrastoak

Napoleon izan nahi dutenentzat

SEGA ETXEAK *Napoleon Total War* izeneko bideojokoa kalera- tu berri du: *Total War* sail ezagu- neko azkena da, eta pertsonaia historiko jakin bat oinarri duen lehen. Jokalariek historia berri- dazteko aukera izango dute Bonaparteren armadaren estra- tegiak gidatuz. Jokoaren sortzai- leek, 3D irudien eta grafikoen kalitateaz gain, zorroztasun his- torikoa zaindu nahi izan dute, eta horregatik dokumentalista talde bat lanean aritu da gataz- kak, armak, uniformeak eta xehetasun guztiak ahalik eta errealismo handienaz jasotzeko.

Jokoak korsikarraren hiru kanpaina garrantzitsuenak bil- tzen ditu: Italiakoa (1796-1797), non austriarren aurka aritu bai- tzen; Egiptokoa (1798-1799), inperioa hedatzeko mameluko- en aurka burutu zuena; eta europarra (1799-1815), alema- niar estatuak inbaditu zituene- koa, austriarrak nahiz errusia- rrak mendean hartu asmoz.



Albert Pla i Nualart

Avui egunkariko edizio burua eta filologoa



«Biolentzia politikotik baino ezin daitezke defendatu hizkuntzak»

Hogei urtetik gora daramatza *Avui* egunkarian lanean, zuzentzaile, eta badaki zer den egunero katalanarekin borrokan aritzea. Liburu interesgarria argitaratu berri du, *Això del català. Es pot fer més fàcil?* (Katalana delako hori. Errazagoa egin daiteke?).
Egungo hizkuntza politikan norabide aldaketa eskatzen du lan horretan.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Oriol Clavera

Aldaketa eskatzen duzu Katalunian indarrean den hizkuntza politikan. Zergatik?

Lurralde jakin batean, hizkuntzaren normalizazioa alderantziz proporzionala da hizkuntza hori guztiena eta beharrezkoa izatetik dagoen distantziarekiko. Hizkuntza bat ezin da normala izan baldin eta lurralde berean mundu guztiak hitz egiten duen beste hizkuntza indartsuago bat badago, eta aldiz, hizkuntza txikia puska batek baino ez badu hitz egiten. Katalana Katalunian normalizatzeko modu bakarra Europako hizkuntza batzuek duten estatusa lortzea da, suedierak duena Suedian, nederlanderak Herbehereetan, eta abar. Zeren, bai, katalanaren ezagutza gora doa, baina erabilera ez dago hain garbi gora doanik, batez ere hirigune handietan, eta gizarte antolamendu horietara garamatza ezinbestean aro postkapitalista honek. Gune horietan katalana atzera egiten ari da. Eta gero, begi-bistakoa den beste kontu bat dago, katalana gero eta gehiago gerturatzeko ari da gaztelaniara, ez soilik lexikoan, egiturazkoak diren mailetan ere bai, sintaxian. Bi bide horiek beraz, disoluzio geldorantz daramate katalana, esparru elebidunaren baitan beti, zeinean mundu guztiak dakien hizkuntza bat eta soilik zati batek bestea.

Zein hizkuntza politika beharko litzateke beraz?

Katalana aitzinatu behar da gaztelania atzeraraziz eta aitzinatze hori egin behar da, noski, lege hertsatzaileen bitartez. Baina garai batean, diktaduraren baitan, gaztelaniarekin egin zutenaren aurka, demokratikoki egindako lege hertsatzaileak behar dute izan, hots, parlamentuak gehiengoz erabakiak. Beti jakinik katalana aitzinatzeko gaztelania atzeratu behar dela. Oraingo egoerarekin katalana salbu dela, arazorik ez dela, ez da egia, soziolinguistikaz arduratuta dagokeen edonork daki hori. Gero, kaleko inpresioa beste bat izan daiteke sektore zabal batzuegan. Horiek katalanez egin dezakete eta katalana aberastasun gisa ikusi, baina ez dute sekula onartuko gatazka.

Katalana ondo omen dago horientzat, arriskutik kanpo, eta zaila da jendea ikusaraztea ikusi nahi ez duen hori. Alde batetik politikariek, nahiz eta jakin zein den egin beharreko hizkuntza politika, ez dute horretan sartu nahi, beren hautesleak ez datozelako bat. Gobernuan den indar nagusi PSCren hautesleria, esaterako, kontra legoke.

“Elebakartasunaren alde egitearen prezioa izugarri altua da, eta akaso katalana gaztelaniaren baitan urtzen utzi behar dugu. Ez litzateke mundua akabatuko. Baina gezurrik ez, mesedez, ezin gara elkarri xaboa ematen ibili”

Katalanaren gaztelaniartzea aipatu duzu. Nola gelditu hori, gelditu behar bada?

Hizkuntzak bide politikoetatik baino ezin daitezke defendatu, lege bidez. Eta ez da politikoki sobera zuzena, baina gauzak argitze aldera esango dut: soilik biolentzia politikotik defenda daitezke hizkuntzak. Hizkuntzalariak ezin du hizkuntza defendatu, hizkuntza garatzen da testuinguru soziopolitikoan, eta katalana ez bada bere lurraldeko hizkuntza komun eta beharrezkoa, ez badugu hiztun elebakarrik, ez badugu, berriz diot, Europako zenbait estaturen antzeko egoerarik, jai dugu. Herbeherearrak eta suediarrek gu baino poliglotoagoak dira, eta herbeherear guztiek eta suediar guztiek ez dute menperatzen berea baino askoz indartsuago den beste hizkuntza bat, hemen gertatzen den bezala. Hemen ezin duzu aurkitu gaztelaniaz primeran egiten ez duen katalanik eta eremu soziolinguistikoko horretan ezinezkoa da gaztelaniartzea gelditzea. Beraz, aldatzeko modu bakarra eremu soziolinguistikoa aldatzea da, ofizialki elebakarrak izatea, Estatu propioarena utopiko samarra baita.

Baina elebakartasun horren alde egiteak prezio garestiegia izan dezake.

Ados, ados, nik ez diot hori egin behar denik, nik esaten dut hori egin behar dela katalana salbatu nahi bada. Ezin dena da jendea engainatu. Noski, hori egitearen prezioa izugarri altua da, elkarbizitza erasango luke, gatazka sortu, eta akaso katalana gaztelaniaren baitan urtzen utzi behar dugu. Ez litzateke mundua akabatuko. Baina gezurrik ez, mesedez, ezin gara elkarri xaboi ematen ibili, ze ondo gauden, beste batzuen aldean ze osasun ona duen katalanak. Hori ez.

Hizkuntzen etorkizuna politikaren esku badago, esaten ari zara gobernatzen zaituzteten politikariek ez dutela katalana salbatzeko borondaterik?

Gobernatzen gaituzten politikariek helburu bakarra dute, hemen dik denbora jakin batera berriz aukeratuak izatea, boterea mantentzea. Indarrean den sistema politikoan epe motzera begira ari dira politikariak eta ezin diezu eskatu harakiria egin dezaten, bozak galtzea eragin dezakeen ezer ez baitute egingo. Bizi garen gizarte eredu hizkuntza aniztasunaren aurkakoa da, eta gaztelania katalanaren etsai izan badaiteke, globalizazioa ere beste hainbeste. Jendea isolaturik eta masa hedabideekin kontaktuan bizi ordez bestelako egitura batean biziko balitz eta erabaki politikoak deszentralizatuagoak balira, komunitate sentimendua sendoagoa, kanpoko presioei erresistentzia egiteko aukera handiagoa litzateke, hizkuntza aniztasunaren alde egiteko aukera ere bai. Egoera horrek paradoxa bitxiak uzten ditu, abertzalea den jendea, katalana salbatzea nahi duena, baina neoliberalak dena era berean. Azken batean hizkuntza aniztasunak, biodibertsitateak bezala, oso zail du bizirautea sistema ekonomiko postkapitalistan. Beraz, aniztasuna baliagarria dela sinesten badugu pentsatu beharko genuke zein den aniztasun hori bermatzeko sistema ekonomiko eta politikorik eraginkorrena.

"Politikariek, nahiz eta jakin zein den egin beharreko hizkuntza politika, ez dute horretan sartu nahi, beren hautesleak ez datozelako bat. Gobernuan den indar nagusi PSCren hautesleria, esaterako, kontra legoke"

Katalanaren araudi zaharkitua aldatzea ere eskatzen duzu.

Araudiaren erreforma eskatzen dut, bada garaia eta. Pompeu Fabrak katalanaren arauak ezarri zituenean, XX. mende hasieran, uste zuen garai hartan hitz egiten zen katalana hondatua zegoela, kutsatua gaztelaniarekin izandako kontaktu luzearen ondorioz. Baina hizkuntza garatu egiten da, eta tesuinguru soziolinguistiko jakin batean urte askoan zehar kontaktua badago beste hizkuntza batekin eta administrazio ikuspuntutik subordinazio egoeran egon bada, hizkuntza horretara gerturatuz gartzen da, saihestezina da hori. Beste gauza bat da hizkuntza ideal eta irreal bat egitea, hau da, hizkuntza zuk nahiko zenukeena izatea, historia beste modu batera izan balitz. Asmatzen dituzunean egiturazkoak diren arau batzuk, sintaxiari dagozkionak, arazo bat sortzen ari zara hiztunarengan, garapen baten ondorio izan diren egiturekin, hiztunak barneratuak dituenekin talka egiten dutelako.

Ia ehun urte izan dira horiek zuzentzeko.

Fabrac arau horiek egin zituenean esan zuen: hiztunek ez badituzte barneratzen erretiratuko ditugu. Kontua da batzuek Bibliatzat hartu zutela Fabrarena, errebelazio jain-



"Bizi garen gizarte erdua hizkuntza aniztasunaren aurkakoa da, eta gaztelania katalanaren etsai izan badaiteke, globalizazioa ere beste hainbeste".

kotiartzat, eta enkistaturik geratu zela, eta orain gu ibili behar gara horren aurka eguneroko borrokan, lanean adibidez, hogeitik gora urte baitaramatzat *Avui* egunkariko edizio buru. Intuizioaren kontra doazen hainbat arau dago, Fabraren garaian ere intuizioaren kontra zihoazenak, eta horiek bazter utzi eta hizkuntzak mendeetan zehar izan duen garapen errealarri gehiago gerturatuko zaizkion arauak aldarrikatzen ditut.

Hiztunaren intuiziora gerturatuko den araudia, beraz.

Baina, kasu, ez naiz inolaz ere kaleko hizkera defendatzen ari. Hizkera

anomaloa da hori, gaztelaniartua, hondamena katalanarentzat. Nik defendatzen dut eredu zuzena izan dadila hiltun jatorrena, gaztelania gutxien kutsatu dituen horiena. Ezin dena da Erdi Aroko hizkuntza defendatu. Hizkuntzak identitate zeinu ere izan behar du, hiztunak autoestimua gal ez dezan, eta ez dadila gertatu galegoarekin gertatzen ari dena, bere garaian ez zela portugesera hurbildu eta gaur egun gaztelaniaz hitz egitea bezalakoa dela ia. Nik ez dut gaizki ikusten berdintasun egoeran gaztelaniarengandik urrunen dauden ezaugarriak indartzea, gaizki iruditzen zaidana da hori funtzionalitatearen

Babeslea: UPV/EHU

UPV/EHU

30 urte irakasten eta ikertzen,
milioi laurden profesional
euskal gizartearen zerbitzura.

artearen historialariak • interpreteak • zuzendariak • gizarte langileak • epaileak • kriminologoak • gizarte hezitzaileak • biokimikariak • zaharberritzaileak • geologoak • teknologoak • politologoak • itsasariak • grabatzaileak • medikuak • arkitektoak • ingeniariak • kazetariak • erizainak • psikologoak • diseinatzaileak • ingeniari teknikoak • kimikariak • biologoak • fisikariak • historialariak • filologoak • itzultzaileak • irakasleak • matematikariak • artistak • odontologoak • pediatriak • ekonomialariak • enpresariak • abokatuak • fiskalak • ikerlariak • pedagogoak • logopedak • eskultoreak • farmazialariak • margolariak • soziologoak • geografoak • topografoak • aparejadoreak • hizkuntzalariak • ziruauak • kardiologoak • filosofoak • antropologoak • forentseak • idazleak • publizistak...



www.ehu.es

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

aurka egitea, edo hiztunaren intuizioaren kontra. Gertatzen da hiztuna ez dela izan horiek bereganatzeko gai, egiturazkoegiak direlako edo inkontzientegiak.

Baina hori al da katalanak orain behar duen erronka?

Arauetan egiten diren aldaketek beti sortzen dute nahasmendua, konplikatuak dira. Baina nik eskatzen dudana gauza bakarra da mundu guztiak dagoeneko egiten duena onartzea, ez aldatzea jendeak oso barneratua duen zerbait. Barneratuta ez dauden hainbat arau eta hiztunaren intuizioaren kontra doazenak ezaba daitezela, akastzat hartuak diren hainbat kontu hizkuntzaren garapentzat har daitezela eta onar ditzatela. Ez du zertan gatazkatsua izan behar, batez ere etorkizuneko hiztunak baldin badiugu buruan.

Egunkari batean lan egiten duzunez, komunikabideen egoeraz galdetu nahi nizan.

Katalanak atzera egitearen arrazoietako bat da komunikabide katalanak gutxiengo direla. Kultur adierazpen guzti-guztietan gertatzen da hori. Telebista digitala duen edonork egin dezake proba, hizkuntza batean zein bestean duen eskaintza begiratu. Irratian, gauzak dauden bezala, eskaintza ez da makala. Baina gaztelaniazko komunikabideekin alderatuta ez gara konpetitiboak, atzera goaz. Gainera, batzuetan uste dugu katalanez egite hutsarekin lana egin dugula, katalanez kontsumitu nahi duenak besterik ez duenez bere hizkuntzan, berdin joko duela guregan. Eta nik uste bikaintasunaren alde egin beharko genukeela guk, onak izateak konpentsatuko baitu neurri batean proportzioan gutxiago izatea. TV3 telebista kateak egiten du hori pixka bat, batzuetan ikus daitekeen kate bakarra da. Sektore pribatuaren aurka ezer gutxi egin daiteke, ezpada hobeak izatea. Irratian ere Catalunya Ràdio eta RAC1 oso lehiakorak dira. Katalunian hizkuntza normalizatzen duen gauza bakarra hezkuntza sistemaren murgiltze linguistikoa da. Sistema hori PPK eta inguruko sektoreek etengabe mehatxatzen dute.

Hezkuntza aipatu duzunez, haren aldean esfortzu handiagoa aitortu diezu komunikabideei hizkuntza malgutzeko orduan, hau da, komunikabideak malguagoak ote diren kritikatzin duzun araudi hori aplikatzerako orduan.

Bai, errealitatearekin duten kontaktua handiagoa baita. Kontzientziazko dira zein puntutara ino arauak funtzionatzen duen edo ez, eta perspektiba ona ematen dizu. Ingalaterra bezalako herrialde normaldu batean ez da existitzen hizkuntzaren gaineko gauzak erabakitzen dituen akademiarik, komunikabide batzuk daude, unibertsitateak, eta abar, eta modu anitzean eta errealitatearen gainean sortzen dute araua, ez alderantziz.

“Herbeherearrak eta suediarrek gu baino poliglotoagoak dira, eta herbeherear guztiek eta suediar guztiek ez dute menperatzen berena baino askoz indartsuago den beste hizkuntza bat, hemen gertatzen den bezala”

Adibidez, dialekto zentrala nagusitu da komunikabideetan, araudiak dialekto guztien arteko nahasketa aurreikusi bazuen ere.

Komunikabideek eta teknologia berriek ekarri dutena da hizkera arruntak pisu handiagoa izatea estandarrean. Zer da hizkera estandarra? Aldera desberdinak hitz egiten dituen komunitatean, komunitate osoarengana zuzentzen zarenean denek beren burua islatuz ikus dezaten erabiltzen duzun aldara. Zentzu horretan, hizkuntza errealak egon behar du dialektoan oinarritua, ez da izan behar eraikuntza ideologiko ideala. Eta zein dialekto izango da? Bada, pisu eta indar gehien izateagatik hiztunen osotasunak ez dialektal gisa ikusiko duena. Nik konparatzen ditut estandar konposizionala —zuk esan bezala, dialekto asko ditugunez, denetarik pixka bat nahastea

eta hizkuntza artifiziala sortzea— eta esperantoa. Arrakastarik izan al du esperantoak munduan, ingelesarekin alderatzen badugu? Batere ez. Gure eredu ekonomiko, sozial eta politikoa ez baitago esperantoarentzat egina, ingelesarentzat baizik. Eta katalanaren kasuan, estandarra esperanto moduko bat izatea nahiko absurdua da. Katalana salbatu nahi bada, modu eraginkorrena joera sozial nagusia jarraitzea da, eta joera hori da dialekto nagusia estandar bilakatzea. Ahaztu egin dugu gaztelania, italiera, alemana edo ingelesaren kasuan antzeko prozesua eman zela, eta ahaztu egin dugu behin ezarri zen dialekto hori jendeak denborarekin naturaltasunez barneratu duelako.

Arazoa sor daiteke horretarako indar nahikorik ez dagoenean, edo are, indarrak norabide ezberdinetan banantzen direnean. Valentzieraren kasua, adibide gisa.

Hori egiteko indar nahikorik ez dagoenean gertatzen dira kalapitak, bai. Katalanarekin gertatzen ari da: ateratzen dira valentziarrak esanez, ez, beren hizkuntza ez dela katalana, beste bat dela, eta gero besteek argudiatzen dute zientziak ezetz dioela, biak hizkuntza bera direla, eta abar. Zientziak ez dio ezer! Hizkuntza ez da grabitate legearen antzera iker daitekeen zerbait, fenomeno politikoa da. Bi dialekto hizkuntza bera diren edo ez, ez da afera zientifikoa, geografo bati bi estaturen arteko mugak nondik pasa behar duen galdetzea bezalako da hori. Valentziera hizkuntza al da? Baliteke, han eratzen bada hori ezartzeko botere politiko nahikoa, bada, izango da. Beste gauza bat da hori hizkuntzaren etorkizunarentzat ona den edo txarra. Ikargarri kaltegarria da bi hizkuntza gisa kontsideratzea. Gaur egun hizkuntzak bizirauteko beharrezkoa du hiztun masa bat eta hizkuntzaren atomizazioa da hizkuntza txikitzeko modurik eraginkorrenetakoa. Bi dialektoon antzekotasunak nahikoak al dira hizkuntza bakarraren parte direla esateko? Noski, baina norbaitek egin behar du kohesio lana, denbora eta indararekin, eta bestela ez da izango hizkuntza. ■

Mikel Basabe

«Patxi Lopezen Gobernuak sortze-agirian dauka hipoteka»

Elorrio, 1966. Ikus-entzunezko komunikazioan eta filologia alemaniarrean lizentziatua da. Aralarreko parlamentaria Eusko Legebiltzarrean. Bere berbetan, aurrekontuak PSEren eta EAJren arteko itunetik atera dira “lehendakaria Lopez izan, Ibarretxe izan”, azpimarratu digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Alex Larretxi

MIKEL BASABEK apirilean bete zuen urte bat legebiltzarkide karguan: “Aurreko legealdian bi urte eman nuen Aintzane Ezenarroren aholkulari gisa. Legebiltzarreko barrunbeen berri baneukan beraz. Legez besteko izapideak, proposamenak eta eskaerak egiteko ohitura, alegia. Gainerako taldeetako kideekin harremana lantzeko parada ere izan nuen”. Esperientziaz jardun dugu hasieran. Honen konstatazioaren bat eskatu diogu hasteko: “Hemen lan handia egiten da” esan digu.

Bestela ere, Legebiltzarraren jarduerak harritu al zaitu zerbaitetan?

Harritu ez. Baina, ordezkatze sistema honetan zerbaitek kale egiten duela esango nuke. Legebiltzarkide denak –parlamentariak edo senatariak– bere lekua alderdiari zor dio hautesleari baino gehiago, eta horrek alderdiari menpekotasun handia izatea ekartzen du.

Aralarrekoen kasuan ez al da horrela?

Guk –lau garenez– beharbada, dugun abantaila da, proposamen baten inguruan zalantzaren bat dugunean, gure jarrera aldatzeko aukera dugula. Hasteko, batzordeetan ordezkarri bakarra dugulako. Guk oraingoz malgutasuna dugu entzundakoaren arabera jarrera zehazteko. Hemen dagoen ajeetako bat da –eta ez da bakarrik Legebiltzar honetako ajea– alderdi diziplinak legebiltzarkidea behartzen

duela botoa bozketara zehazturik eramatera, gaia eztabaidatu baino lehenago. Hori harrigarria bada, gutxienez.

Lopezen Gobernuak urtea bete du. Zein da jardueraren zure balorazioa?

Gobernu honen hipoteka sortze-agirian dago eta denborak are ageriago utzi du hori. Gobernu hau sortu zen Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren akordio bate-

tik, eta akordioak hainbat puntu zehaztatuta dauzka. PPK markatu egiten du gobernuaren jarduna, eta horrek isla zuzena dauka, esaterako eta besteak beste, hezkuntzan izaten ari diren polemika guztietan.

Bere kideek alabaina, aldaketa eta normalizazioaren gobernutzat daukate, tranbertsalitatearena barne.

Normalizazioa esaten dutenean, herri hau normaren barruan sar-





“Ez litzateke ahaztu behar aurrekontuak Alderdi Sozialistaren eta EAJren arteko hitzarmenetik atera direla, lehendakaria Lopez izan, Ibarretxe izan”.

tzeaz ari dira, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) normalizatu nahi dute Espainiaren baitako beste erkidego bat bezala. Baina gobernu hau bakarrik Euskal Herrian da posible, beste inon ez. Bertan PSOEek eta PPK elkar ulertzen dute, eta bata besteari gobernuaren oparitzen dio EAEn eta Nafarroan. Patxi Lopez transbertsalitatearen ez da haiek aldarrikatu duten balioetako bat, hain justu gobernuak –herritarren botoen gutxiengoarekin– herritarren gehiengoari aurre egiten diolako, eta aurre egiten dio hain justu euren ideologiaren alde guztiak gaindituz, salbu Espainiaren ideien kasuan. Gobernu honek ez dauka transbertsalitatearen ez asmo ez helbururik.

30 urtez EAJ izan zen Eusko Jaurlaritzaren buruan. Ezin esan aldaketa onerako izan ez denik ezertan? Ezkerreko ikuspuntu batetik ere ez?

Egia da, azken 30 urteetan EAJ izan zela Gobernuaren buruan, baina beste batetik, ez litzateke ahaztu behar aurrekontuak Alderdi Sozialistaren eta EAJren arteko hitzarmenetik atera direla, lehendakaria Lopez izan edo Ibarretxe izan, akordio haiek sinatu dute. Eta gauza bera gizarte edukia daukaten legeetan ere. Jeltzaleek eta sozialistek akordio nagusi bat izan dute beti. Beraz, ezker ikuspuntutik ezer aldatu den? Ezkerretik aldatzeko beste bazkide bat beharko zuen PSE-EEK. Norbaitek benetan pentsa dezake PPren premia daukan gobernu batek ezke-

rretik aldatzerik daukala? PSE da urteetan aurrekontuak, lege sozialak, baita zerga politika EAJrekin hitzartu duena. Aurten ere bai. Beraz ezkerreko izateko, lehenik, PSEk ezkerreko planteamenduetatik eragiteko borondatea izan beharko luke.

Begira ditzagun sail batzuk: Herri-zaingo Saila zuzentzen duen Adolfo Aresen politika, adibidez.

Gobernu honek sinboloen inguruan bueltaka segitzen du. Hortik ulertu behar da, esaterako, presoaren argazkiak eta berauek Euskal Herriratzeko kalean izan diren ikurren aurka jazaritzea. Halere, Legebiltzar honetan onartu izan da Etxerat-en jardunari buruzko informazioa epaitegitan ematea. Herri honetan biktimak guztien sufrimendua aintzat hartzea behar-beharrezkoa da, biktima mota guztien erreparaziora jotzea eta bitartekoak jartzea berriz ere biktimarik izan ez dadin. Ez dago biktimen artean hierarkizaziorik egiterik eta egiten bada –urrunen dugun sufrimenduarekiko enpatia garatzen ez badugu– ez dugu herri honek behar-beharrezko duen alor horretan aurrera pausorik emango.

Bakerako Hezkuntza Plana hizpide. Zein da zure iritzia?

Plana planteamendu politikoz osatu dute, hezkuntza erkidegoa kontuan hartu gabe zertu da. Lehenik plana egin dute eta gero hezkuntza erkidegoari helarazi zaió. Plana PSE eta PPrena da, Basagoitik dioenez, plan honi “sí o sí”.

Eskola Kontseiluak plana onartu du nolabait.

Guk ez dugu Eskola Kontseiluaren autonomia kritikatu. Plana haiei pasa zitzaion eta ebaluazioan esaten zuten, besteak beste, planak badietuela eduki eta helburu politikoak.

Kontseiluko presidente Konrado Mugertza ordezkapenez zer iritzi duzu?

Gertatuak horrelako karguak erabilerara politikoaren menpe daudela aditzera eman du. Ez dute irudi onik eman.

EAJren oniritzia jaso lezake planak?

Hori jeltzaleek esan beharko dute. Gure jarrera hor dago. Guk planari buruzko iritzia emateko berau eskuetan izan arte itxaron genuen, baita gure alegazioak Hezkuntza Sailera igorri arte. Gai honetan komeni da tentu handiz ibiltzea. Alegazioak egin eta gero eman genuen ezagutzera gure iritzia jendearen aurrean.

Hezkuntza komunitatea nola ikusten duzu berriz, planaren aurrean.

Hezkuntza erkidegoaren egoerari buruz ikuspegi zabalagoaz aritu behar da. Horregatik gehiengo sindikalak, ELA, LAB eta EILAS sindikatuek, maiatzaren 25erako hezkuntza publikoan grebara deitu dute. Hori zerbaitengatik da. Horrelako erabakia ez da hartzen besterik gabe. Izan ere, Gobernuaren joera da erabakiak hartzea eta gero hezkuntza erkidegoari ematea.

Gure ustez, hezkuntza arloan ez da lortu elkarlana garatzea eragile guztietan.

Aralarrek greba deialdia babestu du.

Guk sindikatuek egiten duten deialdia errespetatzen dugu. Uste dugu badaudela arrazoiak mobilizaziora deitzeko.

EAJri greba egitea desproporzionatua iruditzen zaio.

Joseba Egibarrek esan du ez dela momentua greba deialdi baterako. Baina noiz izan da EAJrentzat momentua greba baterako? EAJ horretan ez da aldatu.

Beste arlo batera pasako gara: bake prozesua, normalizazio prozesua edo prozesu demokratikoa. Zuk nola izendatuko zenuke prozesu delakoa?

Egin beharreko prozesua.

Zer lortzeko?

Besteak beste, herri honi behar eta merezi duen ezkerreko planteamendu abertzalea eskaintzeko. Hori lortzeko. Baina horrek gaindituak dauden borroka motak gainditzat ematea eskatzen du, baita elkarlanerako oinarri finkoak jartzea ere.

Batasuna nola ikusten duzu zeregin horretan?

Ni neu baikor naiz. *Zutik Euskal Herria* adierazpenak itxaropenarako bidea zabaldu du. Orain, bidean eta zereginen alderdien arteko errespetuak nagusitu behar du elkarlanerako oinarri sendoak finartzeko. Hortik aurrera dena da posible.

Batasunaren eta Aralarren artean errespetu hori ba al dago? Zein dira ezkerreko abertzaletasunaren planteamendu politiko egokia?

Hasteko gure planteamendu politikoa ez da *Copyright*, gurea *Copyleft* da. Ezkerreko planteamendu politikoak ez dira inorenak, praktikatu nahi duten guztienak dira. 2006z gero, duela bi aste izan dugu batzar ofizial bat Batasunarekin lehenengoz.

"Egibarrek esan du ez dela momentua greba deialdi baterako. Baina noiz izan da EAJrentzat momentua greba baterako? EAJ horretan ez da aldatu"

Harremanak zer ekar dezake?

Gure aldetik normal batzartzea, beti eskatu egin duguna, orain gertatzen ari dena. Orain oinarri sendoak jarri beharko lirake. Izan ere, orain arte hauxe gertatu izan da: erabaki politikoak hartu direla –hor daude dokumentuak– baina [ETA-ren] atentatuak gertatu direnean erabaki politiko horiek ez direla garatu. Guk oinarri sendoak jarri behar ditugula diogunean, horretaz ari gara. Etorkizunean, edozer gauza gertatuta ere, erabaki politikoek aurrera egin behar dutela.

Zentzu honetan nola baloratzen duzu Bruselako Adierazpena?

Bruselako Adierazpenak asmatu egiten du ETARI behin betiko su-eten egiaztatgarria eskatzen dienean. Eta asmatzen du horixe delako ezkerreko

abertzaleok behar-beharrezko daukagun urratsa, guztiok. Hori aurrera-pauso itzela litzateke, baina ezin da hori lotu Espainiako Gobernuak hau edo beste egitearekin. Espainiako Gobernuak edozer egiten duela ere ezkerreko abertzaleok jarraitu behar dugu elkarlanerako oinarriak jartzen, eta horretarako ETAK egin dezakeen ekarpen bakarra borroka armatua behin betiko uztea da.

Brian Currinek ETARI pausoak ematea exigitu behar zaiola dio, baina baita Espainiako Gobernuari ere. Horretan ez duzue bat egiten, antza.

Baina noren onerako da ETAK borroka armatua uztea? Nik garbi daukat. Batez ere euskal herritarren onerako, batez ere abertzaleontzako eta zer esanik ez herritar independentistentzako. Geure onerako da Espainiako Estatuaren aurrean jarraitu beharko dugun borroka beste bide batzuetatik jarraitzeko. Hau da, bide horiek ezin ditugu baldintzatu Espainiako Estatuak egiten duenaren arabera. Guretzat askoz hobeagoa da borroka armaturik ez dagoen agertokia, guretzat, ezkerreko euskal independenteontzat.

Ezker abertzaleko ildoek bat egingo al dute?

Aralarren sorreratik esan genuen, guk ez diogula inori itxarongo. Bidean elkartuko gara elkartzeko oinarriak daudenean, elkartzeko borondatea daukanarekin. Gu gure bidea egiten ari gara, erabaki hori atzeraezina da. ■

argia.com Elkarriketaren bertsio luzea.



ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK
TÉCNICAS DE RESTAURACIÓN DE EDIFICIOS

Olmos pasealekua 14, 5. solairua 20016 DONOSTIA
Tel: 943 401340 · Fax: 943 401511
teusa@teusa.com · www.teusa.com



Euskaraz bizi nahi dut

NAFARROAN euskararen alde sekula egin den manifestaziorik jendetsue-



na izan da maiatzaren 15ekoa. Kontseiluak egin zuen deialdia, arrazoiak ugari baitira Nafarroan euskararen aldeko aldarria egiteko. *Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea* zen manifestaziorako leloa, baina *Euskaraz bizi nahi dut* idatzia zuten kartelak euskaltzale askok zeramatzen. Nafarroako Gobernuaren euskararekiko jarrera negargarria salatzeko eta kritikatzeko festa giroa nagusitu zen. Jai giro horrek, manifestazio bezperan, *Berrian* Iñaki Lasa Kontseiluko kideak esandakoak ekarri dizkit gogora. “Euskalgintza beti izan da ekintzailea. Nafarroako Gobernuaren politikari gehiegi begiratzen zaio?” kazetariaren galderari pentsamendu aldaketa egin behar dela esanez erantzun zion Lasak: “Pen-

tsamendu aldaketa da datozen urteetan sustatu nahiko genukeena. Kontziente garelako soilik pentsamendu aldaketa batek ekar deza-keela aldaketa soziala. Hau da, jendeak pentsatzen baldin badu euskaraz bizi nahi duela, euskararen normalizazioari oparituko diogu etorkizun hobeago bat. Izan ere, euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten eremuak eraiki ahal izango dira. Pentsatzen baldin badugu hondatuta gaudela, ezin dugu... Ez du euskarak etorkizunik izango. Beraz, larunbateko aldarrikapena klabea da”.

Euskal hiztuna indartsuago eta baikorrago? Negarra alde batera utzita? Norberaren eta komunitatearen ahalmenetan sinetsita esan nahi du Lasak?



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Otso talde baten zerbitzura

Suediako finantza ministroak esan zuen Europar Batasuneko (EB) krisi berria eta turbulentzia espekulatiboak “otso talde batek” sortuak direla. Duela bi urte sortu zen eta oraindik irauten duen finantza eta ekonomia krisia eragin zuten otso berberak dira. Otso horien finantza merkatuen gosearen aurrean, europar gobernuak “doikuntza neurriak” hartzen ari dira, otsoek inposaturik. Espainiako Gobernuaren kasua da hori, 15.000 milioi euro aurrezteak erabaki baitu defizita %11,2tik %6ra murrizteko 2011n. Horretarako bi bide aukera zitzakeen: sarrerak handitzea zergen bidez ala gastu publikoa murriztea. Zapaterok bigarren bidea aukeratu du, gastu sozialetan guraizeak sartuz: pentsioak, enplegu publikoa, dependentzia, laguntza sozialak, garapena... Hain zuzen otsoen aginduetara jarraitzeko.

Zapaterok ez du nahi izan boteretsuei zergak igotzeko bidea hartu, oraindik tarte handia dagoen arren: ondarearen zerga berrezarri; PFEZa eraldatu errenta altuenek sarrera handiagoak egin ditzaten; elkarrearen gaineko zergak handitu, batez ere enpresa handietan; bankuen etekinentzako tasa berezia jarri; soilik %1eko zergak ordaintzen dituzten SICAV inbertsio instrumentuak askoz gehiago zergapetu; profesional liberalen (medikuak, abokatuak, arkitektoak, kirolariak...) gaineko kontrola areagotu; fraude eta paradisu fiskalen pertsekuzioan sakondu... Baina “otsoak”, PPren barruan ezkututzen direnak barne, ez daude horretarako prest.

Euskal Herria ez dago soilik EBren menpe, Espainiako eta Frantziako Estaturen menpe ere bai. Horregatik Euskal Herriak bere etorkizuna eta Gobernuak aukeratzeko beharra. Herriarren eta langileen interesak zerbitzatu dituen gobernuak. Eta ez aldian aldiko “otso taldearen” interesak.

Juan Mari Arregi

**Siguan psikolinguista hil da**

PSIKOLINGUISTA OSPETSUA Bartze-lonan hil berri da 92 urterekin. Psikologia linguistikoaren arloan mundu mailako aitorpena izan du Miquel Siguanek, eta murgiltze ereduaren eta elebitasunaren aldarrikatzailea izan da. Quebecoko (Kanada) irakaskuntzako murgiltze sistema Kataluniara eraman zuen eta eredu hori ezarri zen.

Asto Masto Azanzarentzat

IRUÑEKO Zaldiko Maldiko euskara elkarteak Asto Masto saria Xabier Azanza Euskarabideko zuzendariari eman dio aurten, euskararen kontrako politika egiteagatik. Lamien Urrezko Orrazia berriz, euskarazko hedabide nafarrei eman die.

Babesa eta arnasa hartzea

IRUNeko MANIFESTAZIOA balore handikoa da Nafarroako euskaldun eta euskaltzaleentzat. Euskaldunok minoria gara, are gehiago euskaraz bizi garenok, baina populazioaren zati oso handi baten laguntza eta sostengua dugu. Ez da nahiko, zalantzarik gabe, prozesu linguistikoen garapenak hizkuntzaren erabilerari lotutako beste erabateko sostengu eta bilakaera behar baitu. Ez da nahiko, baina bai ezinbestekoa, masa sozial handi hori gabe Nafarroan euskarak nekez lor baitezake igeri egin ahal izateko behar duen ura.

Alberto Catalan Hezkuntza Sailburuak Foru Legebiltzarrean bota berri duen "Gu gehiago gara" mesprezugarriarekin laburbiltzen da UPNk, PSNk eta CDNk babesten duten hizkuntza politika murriztaila. Eta gehiengoa dugunez, ez dizuegu utziko euskaldun bizi ahal izateko aukera garatzen, ez du merezi; horixe da finean esaten digutena. Batzuek gorrototik, besteek mespretxutik eta moderno-toxoenek euskararen behar eza eta diruaren aitzakiarekin; hau da, bakarrik dago dirua itxurakeria egiteko eta legea bere murriztzearen betetzeko.

Inork ez luke ulertuko osasunaren eremuan eskubide desberdintasunik egotea, esaterako, Nafarroako iparraldekoak oro har hegoaldekoak baino argalagoak direlako. Inork ez luke ulertuko eremu batekoek dietak eta analisiak egiteko aukera doan izatea, eta besteek ordaindu behar izatea. Nafarroan hori egiten da bertako hizkuntza batekin, batzuek badituzte legezko eskubideak —garapenera beste beste kontu bat da— eta besteek ez.

Etorkizuneko errejetetan ez da mirakulu handirik, baina asmatu



ARGAZKI PRESS / L.F.A.

egin beharko da horietan. Euskaldunen hiztun komunitateak euskaraz bizitzeko gogoia erakusten jarraitu beharko du. Bada gogorik, eta horren datu ugari daude, baina baita neke sintoma batzuk ere. Ere mu politikoan ere behar da bultzadarik, lehen lehenik diru murrizketak eteteko, eta ondoren Euskararen Legea aldatzeko. Eta bada, halaber, arnasa hartzea ahalbideratzen duten larunbatekoaren gisako mobilizazioen beharra.

HERNANIARREN BATZUK badira gure erredakzioan eta galdetu diet nola doan beren herrian hasi berri den zaborren atez ateko bilketa. Oro har ongi, hasiera guztietan diren arazo txikiak izan direla, baina jendea pentsa baino samurrago ari dela moldatzen diote.

Hilabete batzuk beharko dira bederen emaitza egonkorak ikusteko, baina ez da zalantzarik begi askoren arreta erakarriko dutela. Ia 20.000 laguneko herri batean birziklatze emaitza onak lortuz gero, atez atekoa Gipuzkoa osoan

egin litekeela erakutsiko litzateke. Debagoienan zorrotz ari dira egiten jarraipena, hurrengo froga han izan liteke.

Usurbilgo emaitza ikusgarri jarraiki, Oiartzun eta Hernanik ekin diote orain atez atekoaren ibilbidearekin. Denak ematen du aditza zaborren kudeaketan hau dela etorkizun hurbil eta ertaineko apustu jasagarriena. Atez atekoa, birziklatzeko sistemarik eraginkorrena dela erakutsi da orain arte. Horregatik bakarrik mereziko luke itxarotea eta Zubietako erraustegi proiektua sei urtez atzeratzea.

Zaborrari dagokionez, helburua ez da zaborra elektrizitate bihurtzea, ahalik eta gutxiena sortzea baizik eta sortzen dena ahalik eta gehien birziklatzea. Ondoren dator zabortegia, errausteta edo gasifikazioaren eztabaia.

ZAPATEROKADA iragarri da jada, espero bezala, baina ondoren ere denak nahasian jarraitzen du. Bitxia da, joan den astean burtsak eta inbertsoreak pozarren ziren Europar Batasunak krisiari elkarrekin aurre egiteko erakutsitako jarrerarekin. Denen artean 500.000 milioi euro jarriko dituzte merkatuetan konfiantza barreiatzeko —eta 250.000 gehiago Nazioarteko Diru Funtsak—, hau da, larri dabilzan estatuek —gehienak— beren zorra ordainduko dutela bermatzeko.

Baina merkatuak ez dira fio, badakite EBK ez duela diru hori itsulapikoan gordeta. Ez, diru hori jarri egin behar da eta horretarako ere, beharko balitz, gerrikoa estutu beharko litzateke. Kapitalismoaren inoizko krisirik latzenetik ateratzeko, gerrikoa estutzearena hasi besterik ez da egin.

PELLO ZUBIRIA

Gilles-Eric Séralini, transgenikoen ikerle erasotua

Sinadura bilketa dabil sarean zientzialari frantses ospetsu bati ikerlanean bakean jarraitzen utz diezaiotela eskatzeko. European pixkanaka zabalduz doazen Genetikoki Eraldatutako Organismo (GEO) edo transgenikoek dakartzaten arriskuak aztertu... eta salatu egiten ditu.

ZIENTZIA ALDIZKARI ILUN BATEKO txoko batean plazaratutako ikerlanak lurrikara eragin lezake... baldin eta Monsanto bezalako korporazio ahalguztiduna gezurtizat uzten badu. Horixe lortu du Gilles-Eric Séralini biologoak, eta erraldoia benetan haserretu zaio.

Séralinik Joël Spiroux de Vendômois, François Roullier eta Dominique Cellier-ekin batera *International Journal of Biological Sciences* aldizkarian honako ikerlana plazaratu zuen iaz: “Genetikoki Aldatutako hiru arto bariatuek ugaztunen osasunean dauzkaten eraginak erkatuz”. Ikerlanaren oinarria izan da baloratzea Monsanto genetiko-ki aldatutako bere artoez egindako aditu txostenak. Horrela esanda, ez dirudi hain kontu larria.

Baina hala da GEOak komertzializatzen dituztenentzako. Jakina denez, GEOak dira landareak beste espezieen edo abereen geneak txertatu zaizkienak, eta ondorioz azken urteotako lege neoliberalen arabera patentez babestuak. Urteak behar izan dira Alemaniako epaile batek Monsanto behartu zezan ordura arte inori eman gabeko datuak ikerlari independenteei ematera. Aurretik, GEOak giza osasunean dauzkaten eraginei buruzko ikerketa bakarrak Monsanto berak, ekoizleak, plazaratutakoak ziren.

Séraliniren taldeak laborategiko arratoi batzuk hiru hilabetez elikatu ditu munduan gehien saltzen diren genetikoki aldatutako artoetako hirurekin: NK603, MON 810 eta MON 863. Aldiz, beste arratoiak arto naturalez bazkatu dituzte. Hiru hilabete horien buruan, ikerlariak garbi frogatu dute arto genetikoki aldatuz elikatu arratoiengan giltzurrunetako eta gibeletako arazoak sortu direla, beste arratoiengan ez bezala. Gainera, hiru hilabete gutxiegi direnez, ikerketa bi urtez luzatu beharra aldarrikatu dute.

Ondorio hauek arazo bat baino gehiago sortu diote Monsanto multinazionalari. Alde batetik, GEO horiez bazkatutako animaliei kalteak eragin diezazkietela erakusten dute. Bestetik, hain denbora laburrean abere horien osasunak aldatuak nozitu baditu, pentsatzekoa da epe luzeagoan kalte nabarmenagoak izango dituela.

Azkenik, nahiz eta ikerlana ondorioetan hain urrun iristen ez den, ondoriozta liteke gizakiarengan ere kalteak eragingo lituzketela labore transgenikook. Arto eta soja transgenikoak normalean ez dira erabiltzen gizakiaren otorduetarako, baina horien eratorriak—soja lezitina, esate baterako—jaki industrialean ausarki zabaldua daude. Gainera, transgenikoz alhatutako

Irudi txikikoa da Gilles-Eric Séralini doktorea, Frantziako Caengo unibertsitateko ikerlaria. *Eye Fletch* gunetik hartutako argazki handiak, berri, kattagorri edo urtxintxa erakusten du artoa jaten. European 100.000 hektarea baino gehiagotan hazten da arto transgenikoa, eta gurean Nafarroan ereindako arto guztia herena baino gehiago GEO da. Behin eremu batean GEOa ereinez gero, inguruko beste landareak kutsatzen ditu polinizazioa dela eta. Labore horretaz elikatzen diren animaliak ere kutsatzen ditu, ez soilik ukuilukoak, baita basoan libre bizi direnak ere. Jan dituzten landareetako pozoiak pilatzen dituzte berengan. “Lurralde batean ereindako landareen hamarretik bat transgenikoa baldin bada, ezingo duzu kutsadura kontrolatu”, deklaratu du Séralinik. “Horregatik ez da farmazia landu behar soroetan, kontrolatu ezin delako”.

azienden okela jan duen gizakiarengan eraginik ba ote duen ikertu beharko litzateke.

Azkenean tabu bat hautsi du Gilles-Eric Séralinik ikerketa honekin, erakutsi baitu transgenikoak ekoiztu eta saltzen dituen multinazionalak berak egindako ikerketak ez direla fidatzekoak. Tabuak birrintzea ez zaio debalde atera Séraliniri: Association Française des Biotechnologies Végétales erakundeak prentsa oharrez zabaldu du Séralinik ez duela inolako sinesgarritasun zientifikorik. Unibertsitatean aurrera asko egiteko seinale txarra Séralinirentzako.

Soroak ez bihurtu farmazia

Gilles-Eric Séralini (1960) biologoa ikerlari eta irakaslea da Normandiako Caen hiriko unibertsitatean. Zientzia aldizkarietan argitaratutako lanez at, dozena bat liburu plazaratu du, ezagunenetakoa *Ces OGM qui changent le monde* eta *Génétiqument Incorrect* direlarik. Aurten bertan *Nous pouvons nous dépolluer* (Kutsaduratik libra gaitezke) kaleratu du.

Hala ere, bioteknologiako enpresen *lobby*—tartean multinazionalok ordaindutako zientzialariak—haserarrazi duena ikerketak eta liburuak baino gehiago Séralinik komunikabideetan ozenki esan dituenak dira. Telebistan bidenabar.



Greenpeace erakundeak GEOei buruz egindako *La guerra de los cultivos transgénicos* film interesgarrian –Internetez ikus daiteke– Séralinik esplikatu zituen laborategian gai horiek ikertzeko zeuzkan arazoak eta lortutako emaitza batzuk aurreratu ere bai. Bide batez, kazetariari aitortu zion beste ikerlari asko bezala urte batzuetan bera ere erosita eduki zuela Monsanto.

International Journal of Biological Sciences aldizkariko artikulua dela, eta azken liburua dela, beste bi elkarrizketa luze egin zaizkio Frantziako telebistetan, bat France 3 kate publikoan –hau ere ikusgai Internetez– eta hori izan da oihartzun handiena eman diona. Bertan kazetariak errespetu oso handiz utzi zion mintzatzen Séraliniri, ez alfe-

rrik baita GEOetan munduko aditu nagusietakoa, eta Europako Elkar-tearen aholkularia.

Séraliniri elkarrizketa interesgarria Ana Tagarrok egin zion Vocento taldeko egunkariekin banatzen den *XL Semanal* gehigarriako, gero beste gune aurrerazale txiki ugari zabaltu dutelarik. Bertan ikerlariak argi esplikatzen du zergatik eta zertarako aldatzen diren genetikoki landareak: pestizidak eduki ditzaten.

Monsantok *Roundup* belar-hiltzaile saltzen du –Glisofatoa da molekula– eta transgeniko gehienak egin dira pozo horri eta pestizida gehiagori bizirauteko. Pozoiek inguru osoa suntsitzen dute... Monsanto patentatutako GEO landareak ezik. Nola ez dute arriskurik izango pozoiz betetako landareok?

Hala ere, legearen hutsuneaz eta herritarren ezjakintasunaz baliatzen da Monsanto pozoien kalteez frogak klinikorik egin ez dadin. Edozein botikak –ondo dakite transgenikoen multinazionalak, funtsean farma industria da-eta haien jabea– merkatura ateratzeko frogak luzeak gaintitu behar ditu, laborategian estreina, animalietan gero, gizakietan azkenik... Transgenikoei botiken legedia aplikatu behar litzaieke, landareak pozoiez betetzea delako teknika honen oinarria, baina orain artean multinazionalak lortu dute kontrol horiei ihes egitea.

Séralini eta bere taldeak 3 hilabete laburreko esperimenduak burutu dituzte arratoiekin Caengo unibertsitatean. Elkarrizketan irakasleak ozen dio arratoi emeen odolean %20-%40 gehitzen direla trigliceridoak, koipea, azukrea %10, gibela %7 handitzen dela, giltzurrunetan kalteak azaltzen direla. Hiru hilabeteetan lehen sintomak ikusi badira, arratoiok zer nozituko lukete arto transgenikoa bi urtez janez gero? Eta haurtzaro osoa koipe edo azukre transgenikoak dauzkaten opil industrialek elikatu diren haurrek?

Ez da kasualitatea teknologia genetikoarekin nekazaritza industrialak giza elikadura osoa lau laboretan zentratu izana: artoa, soja, garia eta arroza. Aldiz, askoz landare mota gehiago jan beharko genituzke eta lekuan bertan ekoiztuak, Séralinirekin ustez.

Landareak patentatzearen kontra dago ikerlaria. “Lortu behar dugu landalurra famazia ez bihurtzea”. Baina baikor dago: oraindik libra gaitezke kutsaduratik. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Santi Leone

Superongi

Utz iezadazue nire teoria bat kontatzen: espainolez idatziriko liburu batean alemanezko aipu bat egiten denean, litekeena da gutienez akats bat izatea. Txikikeriaren bat, normalean: s bat, bi s (edo hiru) behar direnean, lekuz kanpoko *umlaut* bat... Baina batek zioen moduan, hegazkin batean hautsontzi bat hausten denean, motorra etortzen zaizu burura. Edonola ere, bakoitzak bere temak dauzka, eta akatsena neure-neurea da. Artetik errateko, orain arte ez dit hutsik egin nire teoria horrek.

Akatsak bilatzea dibertigarria izaten da gehienetan baina, zenbaitetan, bilatu gabe ere hutsek begietara salto egiten dizutenean, amorragarri bilakatzen ahal da. Egunotan irakurtzen ari naizen liburuan, prozesu bat “1870ko” ekainera arte luzatu zen, gizon bat “1874ean” bihurtu zen unibertsitateko irakasle eta bertze bat “1900an” hil zen. Datak ez dira eskas liburu horretan eta egia da anitz ongi idatziak daudela, baina nik hona aldatutakoak ere ez dira gaizki dauden bakarrak. Bertze pasarte batean, zerbait “onartu arazi” dute, eta geroago norbait “isildu arazi”. Ez dakit, bada. Ez dut uste hain zaila denik. Arauak (bi baitira, 23.a eta 43.a), berez, sinpleak dira, hamar minutuan irakurtzeko modukoak, eta aise laburbiltzekoak: “arazi” aditzoinari itsatsi behar zaio. “Onarrarazi” eta “isilarazi”, beraz. Bertze aipu bat, akitzeko: leitzen ari naizen liburuan, gizon batek “lau urtetan” egin zituen ikasketak (tira, egia erran, liburuan “burutu” egin zituen, egin baino –deblauki aitor dezagun– aise doto-reagoa dena), eta bertze bat ez dakit zertan aritu zen hurrengo “30 urtean”. Eta, ez al litzateke hobe alderantziz egitea? Hau da, ikasketak “lau urtean” egitea (multzo bat baita) eta hurrengo “30 urteetan” (hurrengoak izanik, franko mugatuak baitira) deskantsatzea?

Baten batek erranen du, apika, lerrootara ekarri adibide guztiak huskeriak direla.



JOSU SANTESTEBAN

Beno. Ni ez nago ados, baina auskalo. Hala balitz baina, gogorarazi nahi nuke urtero milaka ikasleri horrelako huskeriez galdegiten zaiela EGA azterketako atariko proba madarikatu horretan. Eta data, mugagabearen deklinabidea eta erabilera, eta aditz arazleak klasikoak dira etsamina horretan. Hortaz, beharbada bizitza osoan aditz arazlerik erabiliko ez duen ikasle batek araua ezagutu behar badu, zer dela-eta ez luke arau hori ezagutu behar nork eta idazle batek? Eta delako idazle hori alferra bada, orduan, ez al luke liburu publikatuko duen argitaletxeko norbaitek –zuzentzaile batek, kasu– haren berri izan behar? Bertze argitaletxe bateko itzulpenen uzta gorrian, pertsonaia bat ikusten ahal dugu honako hau galdetzen bere buruari: “Nola sentiaraziko nintzateke..?”. Argitara iritsi baino lehen, inor ez da ohartu?

Egunotan –nekez– irakurtzen ari naizen liburu ez dakit bukatuko dudana. 74. orrira ailegatzean, egileak gaztigatzen digu XIX. mendeko eztabaidak “superinteresgarriak” izan zirela. Auskalo zergatik. Erran nahi baita, auskalo zergatik ziren hain interesgarriak. Beharbada, supersakonak zirelako. Edo supersutsuak. Ez dakit, bada, azalpen horiek bururatzen zaizkit, horrela, superdepronto.

Bakoitzak bere temak dauzka. Nonbait irakurria dut Roland Barthesi ergelkeriak errefusa kasik fisikoa eragiten ziola. Ni, berriz, axolagabekeriak ateratzen nau neure onetik, errazkeriara jotzeak. Koleratu egiten nau. Sutan jartzen nau. Nagoela superhaserre, o sea.

Egunotan irakurtzen ari naizen liburuak sari bat du irabazia. Bai. Datak gaizki deklinatu, arazi sudurraren puntan jarri bezala idatzi eta mugagabea nahi moduan erabiltzen duen batek sari serio inportante bat eskuratu du. Onartuko al genuke horrelakorik auzo erdaretan? Ni ezezkoan nago. Gurean hori “onartu arazi” nahi digutela ikustean, nola “sentiarazten naizen?”. Bada, ez, preseski, superongi. ■

Bakoitzak bere temak dauzka. Nonbait irakurria dut Roland Barthesi ergelkeriak

errefusa kasik fisikoa eragiten ziola.


Ni, berriz, axolagabekeriak ateratzen nau neure onetik, errazkeriara jotzeak. Koleratu

egiten nau. Sutan jartzen nau.

Nagoela superhaserre, o sea

ASTE HONETAKO

zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat


Ondarre baserria
Segura, GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIZPUKOA

www.aquariumss.com

2

Txomin Etxaniz
TXAKOLINDEGIA



Txomin Etxaniz txakolina

Txakolindegira bisitaldia
8 laguneko taldearentzat

C/ Eitzaga Auzoa, 13
Getaria GIPUZKOA

www.txominetxaniz.com

3



Joan Margarit
MISERIKORDIA ETXEA

Premi Nacional de Literatura de la Generalitat de Catalunya 2008, Premi Nacional de Poesia 2008

Hitzaurrea-Prólogo: Elkaritzeta Margarit-Makuso Conversa

meettok

Miserikordia etxea

Joan Margarit

5 liburu opari

Meettok

Tel. 943 298 004

4



Une hegalik gabe hegan

4 CD opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2229. Argia)

AMAGOIA I ETXEKAR

• Blanca Beitia (Durango)

URKI TXAKOLINA

• Unai Bergaetxe (Arrasate)

AQUARIUM

• Migel Angel Aleman (Iruñea)
• Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)
• Patxi Arostegi (Bilbo)
• Adunako Udal Liburutegia (Aduna)

CHILLIDA-LEKU MUSEOA

• Lierni Alberdi (Bergara)
• Imanol Irigoien (Oñartzun)
• Idoia Ormaetxea (Durango)

ESNE ZOPAK

• Ana M. Zubiarrearteria (Eibar)
• Salvador Zabaleta (Gasteiz)
• Aitor Goia (Lizarrza)
• Miren Itziar Enbil (Deba)
• Elena Garaikoetxea (Soraluze)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gozatu
euskaraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia